

# Maileguak Larramendiren hiztegian

BLANCA URGELL\*

## AURKEZPENA\*\*

Lan honetan Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ren (hemendik aurrera *HH*) maileguak aztertuko ditugu, bertan jasotako lexikoaren jatorri eta ezaugarri garrantzitsuenen berri eman nahiz egindako lan orokorrago baten barruan (Urgell 2000a), erakusgarri batek –(H)A-z hasitako euskal hitz guztiak (4.867 lema guztira, hiztegiaren %10etik goraxeago)– eskainitako datuetan oinarrituta<sup>1</sup>.

Abiapuntu moduan, aintzat hartuko dugu Lakarrak (1985, etab.) egin eta eragin zuen Larramendiren irudiaren berrazterketa, hots, jakintzat emango dugu honen lanek euskara kultur hizkuntza gisa sustatzea zutela helburu.

Ezin ezagunagoa da larramenditarren garaia –Lakarraren (1997) periodizazioan “Lehen Euskara Moderno” (1745-1891) deritzana– oso urrun dagoela sabinadar eta azkuetarren garaitik –“Azken Euskara Modernoa” (1891-1968)– maileguei dagokienez, haiek lasai eta eskuzabal erabiltzen baitzituzten, hauek sus-traitik atera eta erauzi nahi izan zituzten bitartean. Alabaina, larramenditarren garai hark badu alderik ere aurreko garaiarekin, non oro har lasaitasun eta eskuzabaltasuna are handiagoak baitziren eta, areago, mailegu mota zenbaitez baliatzea (latinetikoak, kasu) idazkera jasoaren ezaugarri desiragarritzat hartzen baitzuten, eta ez zabarkeria, axolagabekeria edo ezjakintasunaren seinaleztat.

\* UPV/EHU.

\*\* Honako hau gure tesiaren (Urgell 2000a) atal baten argitalpen gaurkotu eta zuzendua da. Zeregin honetan, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzatutako eta Joseba A. Lakarrak zuzendutako “Fundamentos para unos *Monumenta linguae vasconum*: historia, crítica y edición de textos vascos (II)” (HUM2005-08047) ikerketa proiektuaren laguntza izan dugu. Hemendik Joseba A. Lakarra tesi zuzendari nekaezinari gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiogu.

<sup>1</sup> Erakusgarria euskaratik abiatuta hautatu da, hiztegi osokoa izan dadin: gogoan har bedi gaztelania-euskara norabidean eraturako hiztegia dela.

Gogora dezagun, ohiko adibideetatik ez irtetearren, Leizarragaren kasu sonatua.

Badirudi maiz askok pentsatzen dutela larregi ere badakigula maileguei buruz. Hala eta guztiz ere, alderantziz da zeharo, edo ia: lexikoaren historiaren arlo guztietan daukagun baliabide eskasiaren barruan, mailegutza txiroenetakoa dugu, beharbada gehiegitan jakintzat ematen dugulako, hain zuzen.

Gure lehen xedea, bada, orokorra, Lehen Euskara Modernoan maileguak aztertzeko bideak urratzea da, garai honetan Larramendik-eta halako hitzez zeukaten pentsamoldea gogoratuz, bai eta hiztegian batzuk bai eta besteak ez sartzeko daudekeen arrazoiak argituz ere.

Asmo honekin, Larramendiren iritzia azalduz hasiko gara, egilearen beraren hainbat adierazpen baititugu, eta hura testuinguruan ipiniz (§ 1). Bigarrenik, azterketaren oinarriak jarriko ditugu, gure erakusgarriko hitzetan mailegutzat zein hartuko ditugun mugatuz (§ 2.1), eta lagin honetako maileguak nola aztertuko ditugun erabakiz (§ 2.2). Hala bada, horren arabera, ezer baino lehenago lagineko mailegu guztien izaera eta egoera deskribatzeko ohiko parametroetako zenbait erabiliko ditugu: batetik, arlo semantikoak eta gramatika kategoriak; bestetik, berriz, aurreko dokumentazioak (§ 3). Ondoren, Larramendik mailegu beharrezko eta behargabekoen artean egindako sailkapena *HH*-an jasotakoei aplikatzeko saio bat egingo dugu, ezaugarri formaletan oinarriturik (§ 4). Eta, azkenik, hiztegi-gilearen ustez euskal etimologia zuten maileguak berariaz gainontzeoetatik banatu eta bereiz aztertuko ditugu, etimologiaz beste zuribiderik behar ez dutelakoan, euskal etorkia aitortu izanak maileguen harreran zer-nolako eragina izan duen jakiteko (§ 5).

## 1. MAILEGUAK LARRAMENDIREN ESANETAN

### 1.1. Garbizaletasunaren ildotik

Euskara landu, ikasi eta aztertu gabez ustelduta zegoela uste zuten Mayans (1737: 347-348) bezalakoei, Larramendik erantzuten die euskara hizkuntza bizia dela gogoratuz eta, areago, adinagatik ere gorputza (lexikoa) eta batez ere arima (gramatika, arauak) bizkor mantendu dituela baieztatuz (1745: XXXIII, clxv, etab.)<sup>2</sup>. Gure hitzetan ipinita honek esan nahi du, besteak beste, euskara sasoiari dagoela beharrezko arabera berez bere baitarik hitzak sortzeko.

Izan ere, Larramendi etsita dago euskarak badituela (edo bazituela Jainkoak sortua izan zenean) behar diren hitz arrunt guzti-guztiak, era batera edo bestera (1745: XVIII, CXCI, CXLVII, etab.). Errumes agertzen da, berriz, landu gabez hain zuzen (eta euskaldunen axolagabekeriagatik; 1745: XLV, XXXIV, etab.), “fakultatiboak” direlako hitzetan, hau da, Zientzia, Arte eta Fakultateei dagozkienetan (1745: XVIII). Hitz hauetan, gaurkotuko bada, behar ahala maileguak onartzea edo ordainak sortzea du euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala (1728: 123; 1745: XI), baina berak bigarren bidea hobesten du, Ciceron gidari (1745: XI; ik. 1728: 122-123 ere).

Maileguen ikuspegitik, hortaz, *toroa manzana jaten* dei dezakegun iratxoaren aurka borrokatzeaz gainera, hizkuntza gaurkotze eta aberasteari doakio-

<sup>2</sup> Gai honetaz luze dihardu Lakarrak (1993); ikus, halaber, Urgell (2000f, 2004).

nean, Larramendik euskararen baliabideak lantzearen aldeko agertzen zaigu erabat, bere iritziz maileguez hizkuntza aberastu beharrean txirotu egiten baitute, bere ahalmen sortzailea garatzeko aukera –berez eta bere kasa aberasteko aukera– galarazten baitiote: hitz gutxitan esanda, mailegaketa hiztun alfer, ezjakin edota koldarren kontua da.

Kezka garbizale hau Europako hizkuntzen garai hartako –Errenazimenduaz geroko– norgehiagokan kokatu behar dugu<sup>3</sup> eta, Lakarrak erakutsi bezala (1985: 37-41), XVIII. mendearen hasieran gainerako euskal gramatikari-hiztegi-gileetan agertzen zaigun berbera da. Etxeberri Sarakoa (1712: 85 t. hur.) luzez mintzo da “hitz bat latinez, bertcea francesez, bertcea gastelaniaz, edo italianoz” hitz egiten duten –eta horrela “haltoquienic eta ederquienic” ari direla uste duten– euskaldunei buruz, eta azkenean hau esaten:

...esperantça içanen dut, hitz arrotz hortici eta hemendic ebatsiric Escuarari juntatcen diotçatenac, vtcico tuztela, eta escuarazcoac bilhatuco eta hau da bat-bederaren eguinbidea. *Aliena concupiscere noli, ait Cato, id est tuo contentus esto.* Dio Caton çuhurrac: Etçaren bertceren gauca guticios, ceureaz contenta çaita (*op. cit.* 89).

Halaber, Martin Harrietek, labur baina zalantzagabeki, “escualdunec berce hitzcuncetaric hartuac dituzten hitcen khenceco” xedeaz ondutako gehigarri bat ateratzeko asmoa adierazten du (1741: 507)<sup>4</sup>, eta lan hura zer izan zitekeen aski ongi erakusten digu euskara-frantses hiztegitxotik frantses-euskarakora egin zuen hautapen eta garbiketa lanak (Lakarra 1993: 147-180).

Hirurek etsai bera –ezjakintasuna– daukate, eta sendagarri bera –hizkuntza ezagutzea– proposatzen dute; hirurek hizkuntzaren ahalmen sortzailean sinisten dute, eta hirurek hiztegiaren egiteko latzari ekiten diote, ezjakintasunaren kontrapozoia izango delakoan. Urrun xamar daude, hortaz, Leizarraga baten latinzaletasunetik<sup>5</sup>, esate baterako, ezen honek baino oraindik indar gehiagoz uste baitute euskarak berak bere burua jantzi behar duela; baina euren garbizaletasuna are urrunago dago, teorian eta praktikan, XX. mendean euskararen erroak berak ikaratu zituen hartatik (Lakarra 1985: 34 t. hur., 1993: 364 t. hur.), zeren eta, besteak beste, ez baitaukate erdal itxura daukan edozeren kontrako tema hura.

XVIII. mendeko garbizaletasuna, hitzak nahierara jarri edo kentzeko berez tokirik egoki eta errazena den hiztegi batean nola hezurmamitu zen jakiteko

<sup>3</sup> Eta esan gabe doa, beraz, garai berean Europa guztian aurki daitezkeela antzerako adierazpen eta eztabaidak. Adibide pare bat baino ez: XVIII. mendeko neerlandera “bastaard woord” direlakoak –latinismo eta galizismoak gehienbat– eztabaidapean zeuden oraindik, berandu arte hiztegieta jasotzeko uzkur xamar egon ziren hiztegi-gileak, eta batzuetan haien orde hitz berriak proposatu zituzten (ik. Osselton 1973, batez ere 96-97. or.). Justus-Georgius Schottelius (1612-1676) gure artean hiztegi-tzogatik ezagun egin bada ere (cf. Lakarra 1995a), ez da Larramendirengandik gehiegi bereizten maileguei buruzko jarreraren ere: “Of course whenever Schottelius takes the opportunity to comment on the contemporary state of his ancient heroic mother-tongue, he animadverts particularly against any all too ready recourse to words of foreign origin” (Seiffert 1990: 245).

<sup>4</sup> Frantsesezko bertsioan zehaztu zuen bigarren gehigarria hiztegi bat izango zela (Harriet 1741: 504).

<sup>5</sup> Arrazoi guztiaz baieztatu du Echeniquek (1997: 163) Etxeparek ez zuela latinetik mailegatzeko premia objektiborik –antzerka esan daiteke Leizarragaz eta bestez ere, noski–, gaztelaniaz Berceo, Mena eta Góngorak ez zuten bezalaxe: euren hizkuntza aberasteko erabiltzen dute, zeren eta garai haietan, zenbat eta latinaren antz handiago, hainbat eta hizkuntza hobetsiago (*ibid.*).

daukagun adibiderik onena Larramendiren hiztegia da<sup>6</sup>, honek geroko mende eta erdian izan zuen arrakasta dela eta<sup>7</sup>, Etxeberri eta Harriet bere gogaideen saioek, antza denez, fin gaizto egin baitzuten inor haietaz interesatu baino arras lehenago.

## 1.2. Maileguak Larramendiren hiztegia

Mitxelena, Larramendiz idatzi zituen azken iruzkinetan (1984: 13-17), bi ohar garrantzitsu egin zituen haren maileguei buruzko jarrera definituaz: bate-tik, “erabiltzen ziren erdaratikakoak hartu zituela bere obran; ez zuela gehiagorik erabili ez besteri erabilerazi”; eta, bestetik, egin zien harrera eskuzabala “etorkiaren norabidea irauliz” zuritu zuela edo, are polikiago esanda, “zorrak hartzeko bihurtuz” (Mixelena 1983: 915). Ikuspegi hau, erakusten saiatuko naizen bezala, jesuitaren (ustezko) amarruzetasunak eta XX. mendeko gehiegikeriek larregi zamatuta dago oraindik baina, dena dela, izugarritzko aldaketa izan zen, ez bakarrik lehenengoz Larramendiren garaiko maileguen erabilera dela-eta narraskeriaz bestelako arrazoiak aipatu baitzituen, baita *HH*-ko (eta, bide batez, XVIII-XIX. mendeetako literatura hobereneko) maileguak nondik nora dabilizan ezagutzeko bi gai nagusi plazaratu baitzituen: mailegu zenbaiten bizitzan etimologiak izan zuen eragina eta garai haietan mailegaketari jakinari gainean ezarri nahi izan zitzaizkion mugak, alegia.

Lakarrak (1985a: 34 t. hur., 1993: 364 t. hur.), funtsean Mitxelenarekin bat etorriarik, lehenengoz Larramendiren beraren hitzak baliatu zituen, haren egitasmoa euskara erdibidean –maileguei ateak zeharo itxi eta zeharo ireki gabejartzea izan zela erakusteko. Izan ere, jarrera honetan irmo aurkitzen dugu bere ustez euskal idazleek jarraitu beharko luketen bidez ari:

Pero ni tanto ni tan poco para nuestro vascuence. Ni tanto como los ingleses, pues eso es hacer poco aprecio de su lengua y abrir camino al olvido de las voces propias; ni tan poco como los franceses, porque eso es tener cautivo el entendimiento, que por penuria de voces desvirtúa cien pensamientos brillantes. Se debe guardar el medio que hemos propuesto (*Corografía* 294)<sup>8</sup>.

Alde honetatik, oso adierazgarriak dira Mendibururen dotrinari egin zizkion zuzenketatik asko<sup>9</sup>; sarrienik maileguaren orde euskal etorkiko hitza (edo mailegu ezagugaitza) jarri zuen, baita inoiz egilea *edo*-ren bitartez ezarritako maileguzko laguntza ezabatu ere:

<sup>6</sup> Interesgarria izan daiteke, bestalde, *HH*-tik *EGH*-ra Larramendik jarrera aldatu ala mantendu zuen jakitea. Eranskinean bertako lekukotasuna erantsi dut konparabide modura baina, hiztegi osaga-bea izanik, hemen erabiltzen den *corpus*a txikiegi geratzen da ezer garbirik ateratzeko. Halaz ere, bazuetan bertako lekukotasuna ezinbestekoa izango da *HH*-ko gertakari ilun zenbait argitzeko.

<sup>7</sup> *HH*-an agertzea, idazle jasoetan bederen maileguen erabileraren neurri izango zelakoan gaude; eta zehatzago, badirudi euskal etimologiaz hornitutakoak besteak baino aiseago erabili zituztela idazle larramenditarrek, eskubide osoz euskal hitzak zirelakoan (cf. Pagola 1984: 55 eta 1. oh., besteak beste).

<sup>8</sup> Ik. *Autobiografía* 279ko pasarte garrantzitsua ere. Azken hau jadanik Ibarrek aipatu zuen, Larramendiren beraren irizpidea “objetivo, absolutamente cuerdo” zela azpimarratzeko (Mokoroa 1935: 122), nahiz oro har “contribuyó a despertar en nuestros espíritus cultivados el vanidoso prurito de la «diferenciación a todo trance»” (*ib.* 121-122). Honen eztatanda baterako, ik. Urgell 1991.

<sup>9</sup> Lakarraren argitalpena (1986) baliatzen dut, eta bertako oharretako zenbakuntza errepikatzen. Xehetasunetarako, ik. halaber Altuna 1982. Inoren lanari egindako zuzenketen alorra berriro jorratu du Koro Seguroalak berriki (2008), maileguak ardatz harturik, hain zuzen: bere ondorioak ere jakingarriak dira, erakusten baitigute hiztegitik idazketara bitartean ere kideetasunak eta aldeak daudela.

*Ave Maria* > *Agur Maria* (4.20), *Catholicoa* > *Guciaquicoa* (5.20-21), *de-seatzea* > *guticiatzea* (7.12), *Amen, edo ala biz* > *ala biz* (7.13), *erosi edo erre-dimitu* > *erosi* (10.12-14), *erregutu* > *escatu* (13.3-5), *erreguac* > *escabideac* (13.13), *berri banaa edo noticia distintoa emateco* > *berri ta ezaguera banaro emateco* (15.11-12)...

Horrekin batera, bestetan –gutxiagotan, antza denez– mailegua hobetsi edo, gutxienez, laguntza modura ezarri zuen: *sinismena* > *Credoa* (5.1), *eguitez* > *obraz* (5.8), *onestea* > *edo amatzea* (6.21)...

Urte batzuk igarota idazkeraz ari zela egindako adierazpenek, ordea, ez dute nahitaz *HH*-an egin zuenarekin bat etorri behar, hiztegian idazlanetan baino “garbiketa” egitea beti ere errazagoa baita, dudarik gabe. Halaz ere, “De las voces del language vulgar que contiene el diccionario” hitzaurreko atalpean maileguez mintzo den pasarte luzean gaiari antzera heltzeaz gain, maileguak onartzeko edo ez onartzeko erdibide hura non dagoen xehe-xehe argituta utzi zuen:

Entre las voces vulgares del Bascuence, pongo muchas que en propiedad no son bascongadas, ni de origen suyo, pero que las ha hecho proprias suyas por el uso y por la virtud que como Lengua viva tiene de apropiárselas y adoptarlas. Entre estas ay unas introducidas sin necesidad, y aun con perjuicio del Bascuence, cuyas voces nativas se van por esta razón olvidando, v.gr. *santua*, *santidadea*, que en Bascuence proprio es *donea*, *doneera*, y se han conservado en el dialecto Labortano, y aun en Guipúzcoa en parte, pues a San Sebastián, San Juan de Luz, San Esteban, tres pueblos del Bascuence, llamamos *Donostia*, *Done Joane*, *Don Estebe*. Assí son las voces *consuelo*, *tristeza*, *pena*, *dolor*, &c. que se usan en Bascuence, aunque tiene voces suyas correspondientes. Y no obstante las pongo, porque además de averlas hecho suyas la Lengua y ser usuales y corrientes, su significado se entienden todos tan bien y aun más fácilmente que el de las voces proprias Bascongadas. Hay otras que se han introducido por necesidad, como en otras lenguas, y son de objetos que nuevamente se han descubierto, y no ha avido Bascongado que fabrique voces proprias y acomodadas al carácter de su lengua: y éstas necessariamente se avían de poner en el Diccionario. En fin ay otras que están en uso entre los Bascongados que saben Castellano y Francés, y comúnmente saben poco Bascuence: y estas las destierro del Diccionario, assí porque no son necessarias, como porque su significado no es entendida de los diestros y puros Bascongados. Destas voces están llenos los Sermones que oy se predicán en Bascuence (1745: XLVII-XLVIII).

Teorian behintzat, bere garbizaletasunaren lehenengo mugarría hitzak fakultatiboak ala arruntak diren eta honen araberakoa da. Gogora dezagun erabateko garbizaletasuna fakultatiboetan –jakintzetako berbetan– bakarrik praktikatzeko asmoa zuela (1745: XLVIII-L), maileguren kontua hizkera arrunteko hitzak (oso zentzu zabalean) direla eta eztabaidatzeko utzi zuen bitartean, goiko aipua lekuko. Honen azpian, berriz, bereizkuntza teoriko interesgarri bat ezkututzen da: jakintzat ematen du euskaraz inoiz izenik izan ez duten zer bakarrik jakintzetako kontzeptuak direla, hizkera arruntekoak denek izena –euskarazkoa ala mailegua edo, zehatzago, euskarazkoa edota mailegua– daukaten bitartean; hortaz, halako hitzetan hiztegitik ez du mailegurik egiten, jadanik eginak direnen artean hautatzen baizik, Mitxelenaren lehenengo intuizioarekin bat.

Euskaraz aurki zitezkeen mailegu horietan, berriz, hiru mota bereizi zituen: (1) *arbuigarriak*: euskaldun txar erdaldunduek bakarrik erabiliak, euskaldun petoentzat ulertezinezkoak eta, beraz, *HH*-tik kanpo utziak; (2) *behargabekoak*: ordain jatorrak ahantzaranzen dituztenez gero kaltegarriak, baina bestalde euskarak beretuak, ohikoak eta ulergarriak, eta honegatik *HH*-an onartuak; eta (3) *beharrezkoak*<sup>10</sup> edozein hizkuntzak daukan eskubide berberaz –eta euskal izenik eman gabez– euskarak gauza berriak izendatzeko bere egin dituenak, *HH*-an derrigorrez sartu beharrekoak.

Larramendiren jarrera teorikoa, beraz, ez da batere gogorra mailegukiko: ez ditu bat-batean euskaratik erauzi nahi, atalka baizik, alferrikakoetatik abiatuta. Testuinguru honetan askoz hobeto ulertzen dira Mendibururi idatzi zizkion hitzok:

Lajatuco ditugu erbesteco hitz horiec, nai badegu, gure eusquerarenac, piscabana usatuaz ta erabiliaz, escucoi ta jaquiñac eguingo diradenean (*Autobiografía* 279)<sup>11</sup>.

Ez da gogorra, hortaz, ez maileguak ederresten dituelako, baizik eta ez duelako, nonbait, tradizioarekin zein euskara biziarekin behingoan hautsi nahi: mailegu behargabekoen ordain jatorrak eta mailegu beharrezkoen ordain berriak –hartara jarriko diren euskaldunek noizbait eratuko dituzten hitz egoikiak– *piskabana* erabiliaz, azkenik *eskukoi eta jakinak* egingo dira, eta orduan, *nahi badugu*, maileguak alde batera *lajatuco ditugu*; tartean lasaiago jokatu beharra dago, oster, *HH*-an sarbidea izango duten ala ez erabaki aurretik haien premia, ohikotasun eta ulergarritasuna kontuz hausnarturik.

## 2. AZTERKETAREN OINARRIAK

### 2.1. Gure lagina

Teoria hau praktika lexikografikoan nola gauzatu zen zehaztea izango da, bada, gure xedea: Larramendik arbuigarri, behargabeko edo beharrezkotzat jo zituen maileguak zein diren, eta hiztegian nola edo noraino baliatu zituen. Honetara iristeko, lehenengo zeregina corpuseko maileguak bakartu eta haien zerrenda mugatzea da, ahal den heinean hiztegitik jakinaren gainean sartu zituenak soilik aintzat hartzeko. Lanbide honetan baderitzat malguki jokatu behar dela, bai ikuspuntu historiko zorrotza, baita “sabindar” dei daitekeen hura alde batera utzita, Larramendik ez baitzeuzkan gaurko filologoaren tresna eta ezagutzak, ez eta garbizale amorratuak izan zezaketen maileguak harrapatu eta salatzeke grina ere. Euskarri teoriko gisara, mailegu nabarien eta nabari ez direnen arteko bereizketa (Pratt 1980: 116 t. hur.; Miranda 1994: 173) hobetsi dut, gure kasuari zertxobait egokituta.

<sup>10</sup> Feijoo-ren irizpidea oso antzerakoa da: “...para escribir en todas materias, basta por sí solo nuestro idioma, sin los subsidios del ajeno, exceptuando, empero, algunas voces facultativas, cuyo empréstito es indispensable de unas naciones a otras” (*Paralelo*, § 5, ap. Lázaro Carreter 1985: 260-261); eta, areago, “La tendencia utilitaria de esta época hace surgir ya en Feijoo el concepto de *neologismo necesario*: sólo deben admitirse aquellas palabras que no tengan equivalente castellano y cuyo uso sea imprescindible, en virtud de las nuevas necesidades” (Lázaro Carreter, *op. cit.* 263). Bidenabar, Larramendik Feijoo-ren lana liburutegian zeukan (Altuna 1984: 98. zb.), baina argitalpen berankor batean (1749; 9 liburukiak 1726-1740 artean argitaratu ziren; cf. Fernández González 1980: 52-53).

<sup>11</sup> Pasarte honen interpretapen arazoetarako, ik. Urgell (1998: 387, 24. oh.).

Funtsean, mailegu ez nabariak, etorkiaz ohartu gabe, norberaren hizkuntzakoak bailiran erabiltzen diren hitzak dira; eta mailegu nabariak, ordea, atzekak direla gogoan izanik erabiltzen direnak. Nabariak dira, izan ere, interesatzen zaizkigunak, hots, hitzun normal batek hartakotzat joko lituzkeenak, eta ez beren zahartasun itxuragatik –jasotako aldaketengatik– euskarari hain ongi egokitu zaizkionak non adituek ere lanak baitituzte behar bezala identifikatzeko. Hautapena egiterakoan, aldez bederen, neure intuizioan oinarritu behar izan dut; dena dela, zalantzazko kasu askotan Larramendik berak ezarri du muga, zeren gure ikergaia ez baita hitzun normal bat, lotura sumagaitz zenbait sumartzeko gauza zena baizik eta, bestalde, gaztelania, latina eta frantsesa bederen ongi ezagutzen zituena. Hitz bat mailegu nabaritzat hartzeko hartu ditudan neurriak, beraz, bi dira: etorkiarekiko hurbiltasuna (antzekotasuna) eta erlazioa antzemateko Larramendiren gaitasuna. Erabakia ez da beti erraza izan, baina, aldeia kopuru orokorrak gehiegi aldatuko ez lituzketen hitz gutxi batzuen gorabeheran datzanez gero, zalantzazkoak sartu egin ditut, Larramendiren begi-zorroztasunean fidatuta<sup>12</sup>, hain zuzen. Azkenik, ez dut *abarka* bezalako hitzak –hau da, egiatan gaztelaniak euskaratik edo substratu aurre-erromantzetik hartutakoak– azterketatik at uzteko arrazoirik ikusi<sup>13</sup>, gure oraingo irizpideak ez baitauka ezein interesik auzi honetan.

Bestalde, Larramendiren pentsamoldeari zorrozki atxikita, egiatan ez genituzke etimologiadun hitzak mailegutzat hartu behar, zeren eta, bere usteetan, etorkiz eta berezko eskubidez euskal hitzak baitira, ez adopzioz, ez maileguz (cf. Urgell 2008c). Erabateko atxikimendua ezinezkoa da, ostera, hitz horiek *HH*-ra sartzeko deretxa erdiesteko pairatu dituzten iragazki ezberdinak ezagutu nahi genituzkeelako eta, zehazkiago, haien onarpenean etimologiak izan duen eragina neurtu. Salbuespen argi bat egingo dugu, halere: etimologiaren azalpenaren bitartez eratu dituen mailegu itxurakoak (*akatzarro* “cacharro”, *alperdan* “albardán” eta *altzapremia* “alzaprima” bezalakoak), egiatan hitz berriak baino ez direnak (ik. Urgell 2008c: § 5), azterketa hone-tatik kanpo utziko ditugu.

Orotara ezarritako baldintzak betetzen dituzten 364 mailegu bildu ditut (ikus bukaerako eranskina), haien euskal eratorri eta elkartuak sartu gabe. Kopurua, ia 5.000 hitzeko corpus batean, ez da batere handia (%7 inguru). Konparazio batera, Urteren hiztegian (*h*)a hasierako euskal hitzen corpora osatzen duten 1.450 bat hitzetan azaleko azterketa bat eginez, 400-450 mailegu nabari daudela joko nuke, hots, ia-ia herena.

## 2.2. Maileguak egin edo gordetzeko arrazoi nagusiak

Mitxelenaren intuizio biak bat egiten dira *HH*-an aurkitu beharko genituzkeen mailegu motei begira. Batasun hori ulertzeko era bat, lehendik erabiltzen ari ziren maileguei –euskarak nolabait barneratuta zituenei– etimologia emanaz, haien erabilera zilegiztatzen zuela izan liteke: Larramendi, “taktika

<sup>12</sup> Adibide bat ipiniko dut: *apiril* sartu ez sartu nenbilela, hitzaurreko pasarte batean (1745: XIX) hauxe topatu nuen: “Aquella terminación en los meses, *Aprilis*, *Quintilis*, *Sextilis*, es del Bascuence *il*, *illá*, mes”.

<sup>13</sup> Oker ez baldin banago, bera da aztertetako corpusean bakarra: ezaguna denez, kasu zehatz honetan Larramendik asmatu zuela esan daiteke, edo ia (cf. *BDEL*C eta *MDEL*V, s.v.).

maltzur bezain eraginkor batez” (Lakarra 1985: 38) euskaldunak konbentzitzen –edota atzipetzen, zer jarrera hartzen dugun– saiatuko zatekeen, euskarak jada bere zituen hitz beharrezko zenbait alferrik arbuia ez zitzaten. Ikuspuntu honek garrantzi berezia dauka, lehenengoz etimologiak balio praktikoaz –eta ez etsaiak zapuzteko asmo huts eta hutsalaz– eginak izan daitezkeela adierazten baitu.

Haatik, corpusean bereizita agertzen dira, haien artean ebakidura aipagarriak badaude ere: lehenago inoiz lekukotuta dauden maileguak 169 dira (%46,4), eta aldean etimologia daramatenak 200 (%54,9), baina bi baldintzak betetzen dituztenak 86 baino ez (%23,6). Onartu behar dugu lekukotasunen urriak alde areagotu egin duela, baina halaz ere, handiegia da hortik ondorio zuzenik ez ateratzeko: *HH*-an onartutako maileguak eskuarki edo lehenago erabiliak, edota etimologiadunak dira, bi multzoen artean gehienak (283, %77,7) zuri ditzakegularik, corpusaren laurdena baino zertxobait gutxiago soilik (oraingoz) azalgabe utzita.

Araozari zuzen heltzeko bidea bestelakoa da, beraz, nik uste. Gure begietan ondorioak beti bat (maileguak) izan arren, egiatan bi teoria oso ezberdinez ari gara, zeinek bere arau eta mugekin. Larramendik, maileguen mundu lainotsuan batzuk euskararenak eta beste batzuk erdararenak direla erabaki zuen. Euskararen antzinatasunaren teoriaren arabera euskararentzat erreklamatu zituen besteren ustez gaztelaniazkoak (edo latinezkoak, edo...) ziren hainbat hitz, orokorki teoriari eusteko balio zutenak eta zehazki, banan-banan hartuta, batzuetan euskal lexikoa osatzeko baliatu zituenak, dela etimologi azalpenetik hitz berriak atereaz edo dela zeuden-zeudenean onartuaz (cf. Urgell 2008c).

Mailegu “bataiatuak”, hortaz, teoria honen ondorioetatik bat baino ez dira, eta ez, nik hala uste behintzat, Larramendiren maltzurkeria bat. Teoria hau, maileguei dagokienez, indartsuegia da, behar ez zirenak ere (*capu* ‘burua’, *mar* ‘itsasoa’...) inoiz euskal hitzak izan zirela frogatzen baitu; bestela esanda, teoriaren xedea maileguak “bataiatzea” izan balitz, etimologiaren ezinbesteko ondorioa mailegua izango zen, eta ez da hala. Baina aldi berean ahulegia da, etimologigintzari muga jakinak ezarri baitzizkion –bere ustetan zintzoki jokatzu izan behar zituen mugak, hain zuzen–; bestela esanda, maileguak bereganatzeko hain bide erraza aurkiturik, egin beharreko mailegu guztiei etimologia eman ziezaiekeen, eta ez zuen hala egin. Eta hemen sartzen da bigarren teoria, bere ustez mailegu ziren bakarrak bahetu behar zituena, irentsitakoei eta beharrezkoei bakarrik sarbidea emanez. Honetan guztian maltzurkeria ikusteko, Larramendik bere etimologietan antzera jokatu zuten etimologoek baino sinesmen gutxiago zuela egin beharko genuke: alegia, bere lanaren ulerpenean atzerapauso argi bat egin, nire ustetan<sup>14</sup>.

Etimologiaren bitartez berreskuratutako maileguak bistan da ezin direla benetan hartakotzat hartu zituenei ezarri nahi izan zizkien onarpen-arau zorrotzen arabera neurtu: euskaraz erabiltzen ari zirenetakoak zein antzina galdu eta ahaztu omen zirenetakoak izan litezke, teoriak berak berez frogatzen baitu honelakoak euskal hitz zaharrak direla; hots, antzinatasunaren teoriak ohiko maile-

<sup>14</sup> Gai honetaz, ik. Urgell (2008c).



gu batzuekin batera hainbat berri egiteko bidea eman zion hiztegilariari, antzinako ondarea kobratzen ari zelakoan.

Gure ikerketaren xedea, beraz, bikoitza izango da: alde batetik, mailegu arruntak nola, zergatik eta noraino onartu zituen aztertuko dugu, Larramendiren baldintzak gogoan izaki. Bestetik, etimologiak maileguetan izan zuen eragina erabatekoa izan ote zen, ala bestelako ezaugarriek ere (hala nola erabilerak edo maileguaren zahartasunak) pisua izan zuten. Xede honekin, lehenik bi multzoetan batera azter daitezkeen zenbait ezaugarriari (arloan semantikoak, gramatika-kategoriak eta lehenagoko erabilerak) gainbegirada bat emango diet, bigarren urrats batean zein bere aldetik hiztegian nola eta zertarako sartu izan den miatzeko asmoz.

### 3. MAILEGUEN IZAERA ETA EGOERA

#### 3.1. Arlo semantikoak

A letrako corpusa bakarrik erabiltzeak desorekaren bat sor lezakeela ezin da ahaztu: letra jakin batzuen aldean (P dateke nabariena) maileguen batzuetan txikiagoa da, noski, baina, adibidez, *al* artikularen eransketagatik arabetik hartutakoak pilatzen dira arloan batzuetan (gerla, nekazaritza...; cf. Lapesa 1984: 133-140). Hau kontuan harturik, dena dela, maileguen semantikazko nolakotasuna gaingiroki definitzen saia gaitzake.

Burura lehen-lehenik datorren erlijioari buruzko lexikoak<sup>15</sup> lekua dauka, baina agian uste genezakeen baino neurri laburragoan: eskuzabal jokatura ere, 29 bat hitz (%8) baino ez. Larramendik, goian aipatutako hitzaurerako pasartean, bi arlo bereizten ditu, bestalde: *consuelo*, *tristeza*, *pena* eta *dolor* hitzekin ordezkatzeko dituen hitz abstraktuak eta berriki aurkitu/asmatu diren zerak: lehenengo sailean, 33 bat mailegu (%9,1) sar genitzake: *abilantez*, *abilidada*, *admiratu*, *agradatu*, *alegeratu*, *angustia*, *animo*, *arabia*, *arrazoi* eta *arrogantzia* bezalakoak, alegia.

Bigarrena zabalena dugu, inondik ere: badira teknikarekin (*ainazme*, *alabe*, *alanbre* edo *aranbre*, *albornia*, *argana*, *azaia*, *azenia*...), janzkera edo modarekin (*abanino*, *alaja*, *alamar*, *albenda*, *albornoz*, *almila*, *aloza*, *amizkle*, *anaskote*...), itsasoarekin (*adala*, *aingura*, *angara*, *ankon*, *atarazana*, *atarraia*, *azabra*...), komertzioarekin (*abroila*, *adeala*, *aduan*, *alkabala*, *almoneda*, *ahorrua*...), janari-edariekin (*albondiga*, *alboronia*, *almendrada*, *(ardo) arranzio*, *azitroi*), medikuntzarekin (*ajuda*, *alferezia*, *alhurrika*, *arteria*, *asma*) eta musikarekin (*albokea*, *albokero*, *arpa*, *arpista*, *atabal*) lotutako izenak, neurri (*adarme*, *anega*, *aroba*), harri (*agata*, *alabastro*) eta animalia izenak (*aingira*, *alkatraz*, *armiño*, *arratoi*, *atun*...), eta bakanago ordezkaturik dauden beste hainbat arlo, hala nola gramatika (*ablatibo*, *adberbio*), albaitaritza (*adiba*), etxegintza (*adrailu* edo *adrilu*, *aldamio*) edo jokua (*ajedrez*, *arraketa*). Iragarri bezala, bereziki ugariak dira gerlari buruzkoak (*adarbe*, *adarga*, *alabarda*, *alabesa*, *alarde*, *alerta*, *alfanje*, *alferez*, *alkabuz*...; orotara 23, %6,3) eta landare-fruituen izenak (*abeto*, *ailorbe*, *ajonjoli*, *akazia*, *alaga*, *albaka*, *albertxigua*, *alegustre*, *alerze*, *al-*

<sup>15</sup> Besteak beste, Larramendik berak bereizi egin zuen Mendibururi egindako gutunean: “Ta bearbada noiz edo berriz obeco da onelacoac usatzea, Eusqueracoac baño: batez ere Eliz-gauzetan, ta gure arimen salvacioari dagozten eguicarietan” (*Autobiografia* 279).

*kanfor, alkaparra...*; orotara 34, %9,4). Ez dira falta, azkenik, *halifa* edo *atxio-te* bezalako hitz benetan atzeak<sup>16</sup>.

### 3.2. Gramatika-kategoriak

Erabatekoa da, eta txit adierazgarria, izenen nagusitasuna: orotara 275 izen (%75,5), 81 aditz (%22,3), 4 izenondo eta 4 aditzondo (bien artean %2,2). Esan gabe doa izenaz gainerako kategoriak maizenik euskararen barruan erdie-tsi zituela, eratorpenaren bidez: cf., adibidez, *abadetar* “clerical”, *adargaztatu* “adargarse”, *ainguratu* “ancorar”, *aldear*, *aldeatar* “aldeano”, *alegeraro* “alegremente” edo *animateg* “inanimado”<sup>17</sup>.

### 3.3. Lehenago lekukotutako maileguak

Oso zaila da Larramendiren adierazpena frogatzea, alegia, mailegu erabilien artean ohikoak eta denek ulertzeko modukoak bakarrik onartu zituenentz egiaztatzea, lekukotasunen laguntza laburra baita (are sarritan nabarmenki eskasa ere): halako ziurtasun batez aritzeko, lekukotasun idatziek nola edo hala ahozkoaren isla ematen digutela asumitu behar dugu, nahiz hasiera-hasieratik jakin elkarrengandik zeinen urruti dauden. Nabari da menderen mende euskaraz bizi izan diren hainbat hitzek oso berandu arte idatziz jaso gabe izan direla, eta gauzak dauden egoeran daudela, are baliteke inoiz jaso gabe daudenak ere oraindik egotea hor nonbait. Alde honetatik *HH* mugarri garrantzitsu bat izan zen, Hegoaldeko (bederen, baina ziurrenik eremu zabalago bateko)<sup>18</sup> euskal le-xikoa samaldan jasotzeko lehen saioa baita. Testu zaharrek utzitako hutsuneak lekukotasun dialektal modernoan laguntzaz bete ditzakegu, neurri batean bederen; arlo honetan, oster, bi gertakarik gutxienez lainotzen dute kontua: alde batetik, maileguak –gutziz mailegu gordinak edo aintzat hartutakoak– jasotzeko izan den uzkurutasuna eta, bestetik, euskararen legee egokitzeko arazorik izan ez dutenen zahartasuna neurtzeko ezina, edo ia.

Hau guztiau buruan izanik, lehenagoko lekukotasun idatziak dituztenetara mugatuko naiz. Dena dela, benetan mugatzea denik ezin esan daiteke, eremu berri bat alderen alde irekitzen baitzaigu: aurreko literaturak (eta hiztegiek, apika) maileguen onarpenean izan duen papera, hain zuzen. Eremu honetan, hasiera batean bederen, ez dirudi maila berean ezar daitezkeenik Larramendi baino lehenagoko liburu guztietan aurkitzen duguna eta, beste muturrera joanda, Landucciren hiztegian bakarrik jaso dena.

<sup>16</sup> Amerikanismoak ez ei dira oso ugariak *DAut*-en (150 bat; Lapesa 1984: 558); dena dela, *atxio-te*-ren modura, badirudi Larramendik maiz arazorik gabe onartu zituela (erreferentzi modura, besterik ezean, Covarrubiasen amerikanismo zerrenda erabili dut, ap. Lope Blanch 1990: 161, zeinari *chocolate*, *HH*-an ospetsua, erantsi diodan): cf. *cacique* (+ *jauna*), *cano* (+ *zubatontzia*), *chocolate* (+ *godaria*), *huracán* eta *matz* (biak euskal etimologiadunak; *maiza*-rekin batera *artoa* ere aipatzen du), *pita* edo *tuna* (+ *indiapicoa*). Egia da bestetan hitz berria bakarrik jasotzen duela (*edoscortia* “coca”). Agian interesgarrienak, azaldu bakarrik egiten dituenak izan daitezke: *urlurreco abere bat*, *musquertzar andi baten guisacoa* “caimán”, *Mechoacango sustrai bat* “mechoacán”, *ichas-otso mota bat* “tiburón”.

<sup>17</sup> Izan ere, Urterekin maileguetan duen aldearen arrazoietakoa bat hemen daukagu, berak ez baitu oro har oinarria baino mailegatu, donibandarrak eratorriak ere maiz jaso dituen bitartean (*abantailos*, *admirable*, *adulter*, *afrikano*, *aktual*, *amoinero*, *animalario*...). Xehetasun gehiagotarako, ik. Urgell 2003: § 2.7.

<sup>18</sup> Arazo honetat, eta oro har hemen aipatzen direnez, ik. Urgell (2000c).

### 3.3.1. Tradizio sendoko hitzak

Tradizio idatzi sendoa daukaten hitzak bete-betean ohikoen eta denek ulertzeko modukoak sailean eskubide osoz sar zitzakeen Larramendik, eta halaxe egin zuen, agi denez, 1745 baino lehenagoko ia edozein idazlerenean aurki daitzkeen ondoko maleguokin:

adoratu, agradatu, aingeru, akabatu, akordatu, akusatu, amodio, amore, amorio, animatu, animo, an(t)sia, apartatu, apostolu, arbola, arima, arma, arrimatu, azienda, azotatu, azote.

Hegoaldeko tradizioa oro har –eta ez arrazoirik gabe– gutxiesten zuen arren (1745: XXXV), hemengo liburuetan halako maiztasun batez irakurri ahal izan zituen gutxi batzuk ere (zehazkiago *alabanza*, *alabatu*, *alba* (apaizarena), *alkanazatu*, *amatu* eta *anparo*) jasota daude HH-an, hala nola gipuzkerazkoa bakarrik izan den *anima* ere. Esan gabe doa Iparraldeko tradizioak halako gehiago eskaini ahal izan zizkiola; nahiz batzuetan hedadura handiagokoak izan zitezkeela jakin –edo susmatu, behinik behin–, han bakarrik lekukotzen diren eta bertan orokorrak edo aski orokorrak ziren mailegu mordoxka bat igaro da HH-ra<sup>19</sup>:

abade “abad”, abiatu, abilamendu, abisatu, abisu, abstinenzia, adulterio, aire, aitzakia / atxakia, alba “aurora”, alegeratu, altxatu, altzairu, amarra, amarratu, animalia, apart, apiril, area, arka, armatu, arrapatu, arraza, arrazoin, arroka, arropa, arrosa, arte “lazo”, asmatu, atrapatu, autatu.

Lekukotasun gutxiago –eta eskuarki sakabanatuak– dauzkaten arren, literaturatikoak edota literaturak bermatuak bide dira, halaber, *admiratu* (Arg, Gç, Arz)<sup>20</sup>, *adobatu*, *anis* eta *arpa* (Lç, Lcc), *harmonia* (EZ, Gç), *arrasatu* (Lç, ES), *arrasto* (EZ), *arroganzia* (Lç, Ch), *atakatu* (EZ, Arg) eta *atrebitu* (Lcc, EZ, Ber, Ch).

Formaren aldetik, behin bederen Hegoaldeko tradizioaren (egiatan txikia) kontra jokatzeko du nabarmenki, *alegratu* baino *alegeratu* hobetsiaz. Iparraldearen aurka erabakitzen ere badaki, nahiz hala jokatzeko arrazoiak agian mugaren arazoaz bestelakoak izan: (1) *abendu* dakar bakarrik, Ip. *abendo* orokorren kaltetan, hango liburuetan bakarrik lekukotzen den “adviento” adieran ere jaso arren (HH-ko *-oa* / *-ua* bukaeretakako, ik. Urgell 2001: 172-174); (2) Leizarraga eta Axularren *absolbatu*-ren kaltetan *absolbitu* aukeratu badu ere, jakin behar da Kapanaga, Otxoa edo Arzadunetz kanpo Etxeberri Ziburukoak eta Gasteluzarrek ere erabilitako forma dela.

*Absolbitu*-k galdera berri bat sortzen digu, alegia, forma orokorrenen aldeko –batasunaren aldeko– aukera egin ote zuen. Erantzun zuzena, jarraian erakusten saiatuko naizen bezala, baiezkoa eta ezezkoa da aldi berean, baina esan gabe doa batzuetan behintzat baiezkoa izateak daukan garrantzia, hots, 1745 bezain data goiztiar batean jakinaren gainean alferrikako bikoiztasun zenbait uxatu nahi izana.

<sup>19</sup> Kontua errazteko asmoz, Beriainen lekukotasuna Iparraldeko tradizioaren barruan kontatu dut, Hegoaldeko bakarra bera denean. Bestalde, hitzaren benetako hedadura ezagutzeko ezinutzizkoak diren arren, alde batera utzi ditut hemen Hegoaldeko lekukotasun bakartuak: *abstinenzia* bezalako hitz bat, Materre, Etxeberri Ziburukoak, Axular, Xurio edo *CatLav*-ez gainera Kapanagak ere erabili zuela, edo *amarratu* Mikoletak ere jaso zuela jakiteak ez du, nire ustez, inolako pisurik, Iparraldeko erabile- ra sendoaren, eta honek Larramendirengan sor zezakeen inpresioaren aldean. Kontu hauek astiroago ikuskatu ditugu literatur iturriei eskainitako lanean (Urgell 2000b).

<sup>20</sup> Erosotasunagatik *OEH*-aren laburdurak baliatuko ditut; esan gabe doa datuak ere bertatik atereak direla.

*HH*-ak nasai xamar elkarrekin jasotzen ditu hedadura handiko edota tradizio garrantzitsuko aldaera batzuk (*abre / abere, aingura / angura, aitzakia / atxakia, aldare / altare, amodio / amorio*), baita bata euskalki bakar bateko tradiziokoa denean (*arima / anima*). Hauen aldamenen, batzuetan tradizio sendoko (Iparraldeko) aldaerekin batera sekula jaso gabekoak edota bakan-bakan baizik ez jasotakoak biltzen ditu: *altzatu* (vs. *altxatu*), *aparte* (vs. *apart*), *arrazoe* eta *arrazoi* (vs. *arrazoin*). Dena dela, eskuarki ezberdin tratatzen ditu, *aingura, aitzakia, altare, amodio, arima*<sup>21</sup>, *altxatu* eta *arrazoi* sarrera ezberdinetan eta guztiz eratorriak egiterakoan euren kideak baino maizago erabiliaz<sup>22</sup>; ohar bedi, gainera, *angura, atxakia, amorio* eta *altzatu* ezin jaso gabe utzi zitzakeela, *ánco-ra, achaque, amorío* eta *alzar*-en etimologiaren bitartekorik onenak dira eta.

Gainerantzean, oster, ez dirudi aldaerazalegia izan zenik mailegutan: aitzitik, tradizio nahasia zeukaten hitzetan, badirudi forma bakarraren –eta beti ere orokorrenaren– alde egiteko joera izan zuela, berarentzat ezagunena ere bazatekeela ukatu gabe: *apostolu* (Lç, Mat, Ber, EZ, Ax, Cap, OA, Iraz...) dakar, eta ez *apostu* (Cap, Urq), *apostulu* (Lç) edo *apostolo* (El); *aingeru* (Lç, Mat, Ber, EZ, OA, Urq...) dakar, eta ez *angeru* (Lcc, Cap, Urq) edo *aingiru* (Ber, Ax, ES); *animalia* (Ax, Gç, ES, *CatLav*), eta ez *animal* (Lç, EZ) edo *animale* (Ber); *apiril* (Harb, Ch, *CatLav*), eta ez *april* (Lç, Urq); *arropa* (Lç, EZ, Ax, Gç, ES...), eta ez *erropa* (Cap, Urq); eta, nolana ere, badirudi aldaera zenbait hobetsi zituela: *amodio* eta *amorio*, baina ez *amudio* (EZ, Cap, Arg, Gç, Ch, Urq); *aingura* eta *angura*, baina ez *ankora* (Lcc).

Tradizioaz ari garenez gero, zeharo aipagarria da tradizio erabat zalantzati bat bederen apurtzen ere jakin zuela: inoiz jaso gabeko *alegeria* formak *alegranza* (Lç, Gç), *alegranzia* (Lç, Arg), *alegriantza* (Mat, Harb, Ax), *alegeranzia* (EZ) eta *alegria* (Ber, Urq) zeharo ordezkatzeko ditu *HH*-an.

### 3.3.2. Bakanki lekukotutako maileguak

Iturri bakar batean agertzen diren maileguak eztabaidagarriagoak dira, lehen begiratuan bederen: iturria Larramendik ezaguna bada, zail xamarra izan liteke hartatik ala bere burutik atera duen frogatzea; ezezaguna bada, berriz, pentsa genezake halabehar hutsak bildu dituela egiatan erabiltzen ez zen mailegu irentsi gabeko baten bi lekukotasun. Hala ere, Larramendiren esanak sinistu behar baditugu, hau da, ohiko eta arruntak bakarrik jaso nahi zituela, irakurri izanak pisu berezia izan zezakeen bai-zezakeo kontuetan. Uste honen lagungarri, badira arrazoi bategatik edo bestegatik –eskuarki hitzaren berezitasunagatik– ia zalantzarik gabe tradizio idatziaren bitartez eskuratutako mailegutzat har ditzakegunak: *aberia* (Etxeberri Sarakoa), *angura* (Leizarraga), *asaiatu* (Gasteluzar) edo *azuzena* (Oihenart)<sup>23</sup> dirateke ziurrenak. Beste horrenbeste esan dezakegu “en un dialecto” moduko adierazpenak lapurterari dagozkionean: *arras* (Axular). Ohartu, bide batez, bostak etimologiadunak direla.

Leizarragak are adibide interesgarriagoak eskaintzen dizkigu, mailegu askoren lekuko bakarra bera baita. Ezin ahantz dezakegu Bibliaren itzulpenarekin izan ziren gorabeherak: 1576an Eliz batzarraren Bilkurak “...decide que no se

<sup>21</sup> *OEH*-ak jadanik markatzen du ezen “En guipuzcoano, la forma predominante en toda la tradición es *anima*, aunque Larramendi (y tbn. Iztueta) se decantó por *arima* en sus escritos” (s.v. *arima*).

<sup>22</sup> Benetako salbuespen bakarra *abere / abre* bikotea da, paretuan baitabiltza, eta elkartuetan sarritan *abre* hobetsi zuen (ik. Urgell 2008a, § 1.6.1.c).

<sup>23</sup> Xehetasunetarako ik. Urgell (2000b), eta *azuzena*-rako (2000e).

cambie absolutamente nada en contra de la edición de la Vulgata: ni un período, ni una cláusula, ni una frase, ni una palabra, ni una sílaba, ni un signo” (ap. Alonso & Zurro 1977: 325). Xehetasun batek baino gehiagok Leizarragaren itzulpena Larramendik oso kontuan hartu zuen iturria izan zela adierazten digutelarik, ez bide zen izan txikienetakoa Jainkoaren Hitza euskaraz begi aurrean izatea, Bibliak bakarrik eskatzen zuen *ad verbum*-eko (Trento osteko adierazpen haren arabera, *ad signum*-erainoko) fidelitasunaren tradizioaren zamapean. Esan gabe doa Leizarragaren mailegukiko eskuzabaltasunaren arrastoak bakanak direla *HH*-an, baina izan badira: ezin zaio halabeharrari egotzi *adulteratu*, *adulterio* eta *adultero* familia osoa berarengan bakarrik lekukotuta, Larramendik hirurak ekartzea *HH*-an, ohi bezala egile izen gisa *\*adulteriogile* edo *\*adulteratzaile* bezalako zerbaiten orde<sup>24</sup>. Antzeratsu gertatzen da Leiz. *administratu-administratzale* eta Lar. *adiministratu-administratzaile* familiarekin<sup>25</sup>. Argudiaketarekin jarraituta, baina alderantziz begiratuta, ez zait iruditzen *ardit* eta *arregatu* bezalako hitzak –baita agian *anis*, *armadura* edo *arpa* ere– hiztegian izateko zio hoberik idoro daitekeenik, Leizarragak erabili izana baino.

Bestalde, Larramendik ezagutu ez zuen lekukotasun bakar batek hitzaren euskararen barruko bizitza berma dezake: hala gertatzen da, adibidez, Oihe-narten atsotitz batean bakarrik (*PrASJU* 286) aurkitzen dugun *adiba*-rekin.

### 3.3.3. Hiztegiatiko maileguak

Oso bestelako esangura daukate lehenago hiztegiatan bakarrik –Pouvreau eta Urtez ari naiz oraingoz– lekukotuta dauden hitzek: elkarrengandik aske diren lekukotasunak direnez gero, ahozketasunaren aldetik berez susmagarriak izan arren (hiztegiatiko lekukotasunak ohi bezala), hauetarik bat edo biak Larramendirekin bat etortzea bistan da erabileraren ez bada, sakonki sentitzen zen behar baten isla bederen izan daitekeela.

Kontuak nondik nora doazen jabe gaitezen, errepara dezakegu kopuru jakingarri batean (corpusaren %10,2) hirurek mailegu berberak onartzen dituztela, Pouvrearena, euskara-erdara delako, hain zuzen, besteen aldean erdal hitz askoren ordainak peit ditzakeen arren; hona hemen:

abadesa, abisatu, abisu, adoratu, aingura, aire, akabatu, akusatu, alabatu, alba, aldare, algeratu, altxatu, anega, animalia, animo, an(t)sia, apart, apartatu, apiril, apostolu, arbola, area, arlote, arma, armario, armatu, arrapatu, arrazoin, arropa, arrosa, atabal, atrebitu, atun, autatu, azotatu, azote.

Gutxi batzuk hiru hiztegiotan bakarrik (*anega*, *atun*) edota hiztegiatan bakarrik (*abadesa* [+ Landucci, Mikoleta]; *armario* eta *atabal* [+ Landucci]) lekukotzen dira. Haien artean erlaziorik ez izanik, lekukotasunean bat datozen hiztegien kopurua zenbat eta gehiago igo, hainbat eta hitza bermatuago dukegu. Eskuarki, hitzok hiztegiatetik kanpo ez agertzea, aurreko literaturaren gai muga hertsiek azaltzen dute ezerk baino hobeki, jakina<sup>26</sup>.

Bestalde, Larramendi eta Urte (beraz, tamaina bateko erdara-euskara hiztegien egile biak) bat datoz zenbait hitz oso markatu –kultur hitzak denak– adierazteko mailegua onartzean: *abeze*, *abezedario*, *ablatibo*, *adberbio*, *akazia*, *alabarda*, *amelo*, *ambrosia*, *artemisia*, *arteria*, *artxiduke* eta *artxidukesa*.

<sup>24</sup> *-ero* erdal atzizkiaren agerraldi urriez, eta *-tzaile* atzizkiaren nonahikotasunaz, ik. Urgell (2003).

<sup>25</sup> Badirudi iturrietako atzizkiak aldatzeko joera izan zuela (ik. Urgell 2000b).

<sup>26</sup> Honetaz luzekiago jardun dugu beste lan batean (Urgell 2008a).

Landucciren kasua alde berdina da, Hegoaldean gutxi-asko erabilitako zenbait maileguren berme izan baitaiteke, eta alde ezberdina, bai baitirudi Larramendiren iturria dela, alegia, lehendik ezaguna zen *Eranskin*-etik kanpora ere (cf. Urgell 2000d). Izan ere, kopuru oso jakingarri batean (21 hitzetan, %5,8) biek soilik jaso dituzten edo Larramendik ezagutu ez zituen iturrietan baizik agertzen ez diren maileguak aurkitzen ditugu corpusean:

abadia, adarga, adarme, akusazio [+ Urte], alferrez, almena, almendra, angarila, armario [+ SP, Urte], arrendatu, arropa, arroz, artilleria [+ Urte], artista, arzediano, asma [+ Urte], atabal [+ SP, Urte], atapatu, azafrai [cf. *aze-frae* Mikoleta], azeituna [Mikoletaren testua; cf. SP *azitun*], azoge.

Interpretazio bat baino gehiago eman dakiok bat etortze honi, Landuccik *HH*-aren gorputzaren barruan eraginik izan zuen ala ez, eta honen arabera. Bestelako lekukotasunak dituzten hitzak alde batera utzita, gainerakoak sarritan kultur hitzak dira, eta ez nolanhikoak. Maileguk, niketz, *HH*-an ere erabili zuela sinisten hasteko bidea ematen dute, hiztegiak ustiatzeko hiztegiileen joera ezagututa, bietan bat datozenak gehitxo dira eta. Hipotesi honen barruan, Landuccirengandik, zaborra alde batera utzita, “ohiko eta arruntak” edota beharrezkoak zeritzen maileguak bakarrik hartuko zituen, bide batez haietako askori etimologia aurkituaz eta, beraz, bere ustetan Landuccik euskarari egiten zion kaltea hein batean behintzat ezeztatuaz<sup>27</sup>.

### 3.3.4. Alde batera utzitako maileguez

Larramendik alde batera utzi zituen maileguak, mailegu arbuiagarriak, ezin inolaz ere zenbat edo neur ditzakegu, arrazoi nabariengatik. Halaz ere, zer izan zitekeen suma dezakegu Leizarraga eta Axularren lexikoen laguntzaz (Aresti 1973 eta Villasante 1973, hurrenez hurren). A letran honako hauek dira idazle garrantzitsu hauengan agertzen diren eta *HH*-ak jasotzen ez dituenak:

LEIZARRAGA: abandonatu, abanzamendu, abanzatu, abarizia, abarizoso, abastant, abatitu, abaxatu, abertitu, abhorritu, abismatu, abisme, abismo, abolitu, abominable, abominazione, abundant, abundantatu, abondos, abrebiacione, absent, absenzia, abundant, abundanzia, abundantatu, abundos, abundoso, aburtoin, abusatu, abusione, abusu, adbenimendu, adbersario, adbersitate, adbertimendu, adbertitu, adbokat, adbokatu, adiuratu, administracione, admonestatu, admonizione, adoptatu, adopzione, adoracione, adultera, afektatu, afekzionatu, afekzione, afirmatu, aflikzione, aflijitu, aiutatu, akablatu, akilone, akkiszionatu, akkisitu, akkistatu, akometatu, akometitu, akord, akordu, akotamendu, akotatu, akotratu, akte, akuarius, akzentu, akzes, alegianza, aleganzia, alianza, alienatu, alogeatu, aloes, amusatatu, anathema, anoblitu, anotacione, anplifikacione, antikitate, anunziazionatu, anziano, apazegatu, aparailu, aparent, aparenzia, aparizionatu, apartenitu, apelatu, apertenenzia, apertenitu, apetitu, aplikatu, apointkamendu, apointkatatu, apendiz, aprestatu, aprobatu, apropiatu, arbitre, ardent, argumentu, arker, aromate, aromatiko, arrestatu “llevado a cabo”, arrebeztitu, arribatu, arrogant, artikulatu, aseguranza, aseguratu, asignatu, asistitu, asuieitu, asunzionatu, asenzionatu, atento, atestacione, atribuitu, audazioso, audienzia, augmentacione, augmentatu, aumoina, aurikular, autentico, author, authoritate, azeptatu, azeptacione (GUZTIRA 132).

<sup>27</sup> Argudio sendoagoak aurki daitezke Landucciren hiztegiari eskainitako atalean (Urgell 2000d: § 2).

AXULAR: abarizia, abarizios, abenitu, adio, akometatu, akordu, akort, alegatu, alegriantza, amainatu, anbar, aparailu, apelatu, apetitos, apetitu, apoderatu, aprendiz, arku, artikulua, arrobatu, arroda, arroxina, atriaka, atri-zione, audientzia (GUZTIRA 25).

Ondorioak zeharo interesgarriak dira, eta ez bakarrik *HH*-rako: Lehenik, lagin honen arabera, Leizarragaren liburuaren tamaina eta gai ugaritasuna aitortuta ere, balirudike hirurogeitamarren bat urtean euskal idazle onenen mailegukiko sentimena asko aldatu zela, gero XVIII. mendean agertuko zen garbi-zaletasun hura iragarriaz: maileguei dagokienez, Leizarragagandik Axulargana askozaz alde handiagoa dagoke, beraz, honengandik Larramendigana baino.

Bigarrenik, bi idazleak *abarizia*, *akometatu*, *aparailu*, *apelatu*, *apetitu*, *aprendiz*, *artikulu* eta *audientzia* maileguetan bat etorri arren, *HH*-ak ez du haien arrastorik ere; beraz, zehaztu behar den neurriren batean Larramendik esan baino garbiketa handiagoa egin zuen; ohartu *HH*-an daramatzaten ordainen arabera haietako batzuk behargabekotzat joko zituzkeela Larramendik (euskal ordain arruntak daramatzatenak, hain zuzen), eta besteak beharrezko-  
tzat (ageriko hitz berriak daramatzatenak, jakina):

Acometer, *eraso*, *eraunsi*, *acopilatzea*.

Aparejos, instrumentos, *lanabesac*.

Apelar, *gandeitu*, *godeitu*, *gorasi*, *gorastu*.

Aptencia, apetito, *gogoa*, *naya*, *ganá*, *zalea*, *trempea*, *jambidea*.

Aprendiz, *icasaria*, *icasjarduna*.

Artículo de el nombre, *osichecá* // Artículo en los libros, *berecindea* // Artículo de la Fe, *sinistamena*.

Audiencia, el acto de escuchar, oír, *aditza* // Audiencia, que dan los Príncipes, *adiundeá*, *entzundeá* // Audiencia, tribunal, *adiundeá*, *entzundeá*, *auzbaquidea* // Audiencia, lugar, *adiundeteguia*, *entzunde lecuá*.

Avaricia, *cicoznaya*, *cequenaya*, *guticia*, *irritzá*, *cequentasuna*, *lucurarigoa*.

Eta, hirugarrenik, badirudi mailegu bat onartzeak ez dakarrela ezinbestean familia osoa onartzea: aitzitik, *administrazione*, *adorazione*, *akordu* eta *arrogant-en* ordez *HH*-ak *beguiranza*, *gurtea*, *cordea* eta *arrotia* ditu, adibidez, *administratu*, *adoratu*, *akordatu* eta *arroganzia* jasota badaude ere.

#### 4. “BENETAKO” MAILEGUEN ERABILERA

Hitzaurreko pasartearen arabera, etimologiadunak alde batera, bi mailegu mota bakarrik aurkitu beharko genituzke *HH*-an, arbuiagarriak berez kanpoan lagako zituelakoan: beharrezkoak eta behargabeak. Behargabeak euskal esanahikideak baino erabiliago eta are ulergarriagoak izateagatik dute sarbidea, baina, Larramendiren egitasmo osoa ezagututa, espero izatekoa da esanahikide ahaztu edo erdi-ahaztuen –sarritan euskalkietan sakabanatuen– alboan agertuko direla. Beharrezkoak, berriz, euskaraz izenik ez duten zeren ordaintzat onartu dira; berez, hitz arruntak izanik, *surrantsa*, *sutunpa* eta *godaria*-z beste hitz berririk egin ez zuela dioskunez, beharrezko guztiek erdal hitzaren ordain bakarrak izan beharko lukete; baina, bestalde, pasarte berean “no ha avido Bascongado que fabrique voces propias y acomodadas al carácter de su lengua” dioenez, zalantzan jarri beharko genuke, hasiera batean behintzat, hitz berri

gehiago egiteko tentazioari benetan uko egin zionentz, tradizionalki kontu honetaz izan den mesfindatzari berea eman ez-edo.

Corpusean ere bi mailegu modu nagusi –oso era ezberdinean tratatuak– bana daitezke, goiko bi kategorietatik bereizteko “ezinbestekoak” eta “behin-behinekoak” deituko ditudanak. Ondoko lerroen zeregina, bi mota hauen ezaugarriak aztertzea izango da, eta teorikoki ezarritako goiko baldintzekin bat datozenentz erabakitzea.

#### 4.1. Ezinbesteko maileguak

Euskal kide hoberik aurkitu ezean eta “adimena katibu” izan nahi gabez ezinbesteko mailegutzat jo bide zituen, lehenik eta behin, *HH*-ko sarreran berak bakarrik agertzen direnak (izarra beherago azalduko)<sup>28</sup>:

*\*abade* “abad”, *\*abadia*, *abanino*, *abeto*, *\*abeze*, *\*abezedario*, *\*abitu*, *\*ablatibo*, *\*adarme*, *ados*, *agata*, *\*aingeru*, *\*aire*, *ajedrez*, *ajonjoli*, *\*akazia*, *alaja*, *\*alba* “alba de sacerdote”, *albaka*, *albertxigua*, *\*alboka*, *albokero*, *\*aldare* / *\*altare*, *alegustre*, *alerzea*, *alfanje*, *\*alkabuz*, *alkanfor*, *alkanforatu*, *alkaparra*, *alkatraz*, *almez*, *almidoi* / *amirun*, *almila*, *almoneda*, *\*amelo*, *\*amitu*, *\*ambrosia*, *\*anega*, *\*anis*, *antxoba*, *\*arma*, *\*armatu*, (*ardo*) *arranzio*, *\*artxiduke*, *\*artxidukesa*, *\*arzediano*, *\*atun*, *atxiote*, *\*azafrai*, *azerola*, *\*azukre*.

Beste horrenbeste esan daiteke (1) alboan ordain baliorik ez duen definizio orokorra daramatenez, edo (2) ordainaren ordeztu definizioa (mailegua barne) eta, agian, (3) alboan ordain perifrastiko luzea daramatenez:

- (1) *alboronia* (+*baratzako jaki nastea*), *amomo* (+ *belar bat*), *anakardo* (+*Indiako zuaitz baten frutua*), *azor(e)* (+*egazti arrapari bat*).
- (2) *\*adberbio* (*ala deitzen diogu berboari da*)[i]rraikaren erailsun bati, eta aren adierazia nolatan duenari: egin, orra berboa; gaizki, ondo, ederki, itsuski, orra adberbioak, berboaren adierazia nolatan dute-nak), *\*aleluia* (*alá deriste Larunbat Santuan botatzen diraden pape-rezko bixxeletak, lendabiziko aleluia esatean*), *\*apostolu* (*ainbat da nola bialdua, egorria, mandataria; baña bereziki ala deitzen dira amabi Apostoluak*).
- (3) *\*abadesa* (+*andre monjen agintaria, lenena*), *almiranta* (+*almirante-aren onzia*), *\*almirante* (+*itsasoan agintari dana, agindea duena*).

nahiz inoizka perifrastikoak iradokitzen duen bidearen alde egiten duen:

*alajatu* (+ *gauza ederrez ta valiosaz apaindu*, baina “*alajado, alajatu, apaindua*”).

Azkenik, talde honetan sartuko nuke *armadura* ere, corpusean bakana izan arren, hiru arrazogatik: *-dura* Larramendiren ustez euskal atzizkia da (cf. Urgell 2003); *arma* eta *armatu* ezinbesteko maileguak dira eta, gainera, alboan daraman esanahikidea (*armapila*) familia bereko elkartua dugu (berria, jakina).

Etimologiak azaltzen ez dituen 133 maileguetatik<sup>29</sup> 66 honelakoak dira (%49,6), eta haien artean 34 (%51,5) lehenago lekukotuta daude (goian izarrak

<sup>28</sup> Jakina, ordain bakartzat hartu ditut *-a* / *-ea* bikoteak; ik. honetaz Urgell (2001: § 5.2.1).

<sup>29</sup> 200 mailegu etimologiadunei euren familiako gainerakoak (31 orotara) erantsi behar zaizkie: azken hauek ere, geroago ikusiko dugun bezala, etimologiaren bitartez azaldu beharrekoak dira.



markatuak). Halaz ere, gogora dezagun beharrezkoen taldeko partaide izateko ez dela nahitaz mailegu zaharra izan behar. Semantikoki, bestalde, denak koka daitezke Larramendik beharrezkotzat jo zituen maileguen taldean: landare-fruituek izugarritzko sarrera dute (orotara 17), gehienak atzeak (jatorriz ekialdekoak, Amerikakoak edota Mediterraneokoak) eta, Larramendik esan bezalaxe, euskal etorkiko izenik gabekoak<sup>30</sup>. Atzetik erlijioarekin lotutako izenak (11) doaz; gainerakoan, oso gai ezberdinak daude ordezkaturak: gerla (4), gramatika, moda eta animaliak (3na), neurriak, jokoa, musika, jan-edariak eta noble-tituluak (2na), komertzioa, harriak eta elementuak (bana), naturako gai kimikoak (bat eta dagokion partizipioa).

Zehaztu behar da mailegua ez duela nahitaz erdal hitzaren adiera guztietarako onartzen: cf., esaterako, *aire* “aire, elemento” vs. *egurasa* “aires que se toman para la salud y oreo”, *aize* “aire, viento”, *era* “aire, bueno o mal modo”, *eskutura*, *anza*, *anza* “aire, forma, modales en el andar, hablar, &c.”, edo *ambrosia* “ambrosía, planta” vs. *Jaincoen edaria* “ambrosía, bebida de los Dioses”.

Talde honetako hitz asko bakartuta agertzen dira hiztegian, arrazoiak arrazoi, baina bestela, gainerako euskal hitzak bezalaxe gai dira familia egiteko eta, jakina, bestelako sarreretan ere agertzen dira aukera dagoenean, eta honek esaten digu hiztegi barruan euren egoera zeharo normala dela, euskal hitz guztiena bezalakoxea:

*ados* (*adosatu* “(ponerse a) dos”), *aingeru* (*aingeru belar* “angélica”, *aingerutar* “angelical”, *aingerutxo* “angelito”, *aingerutu* “angelizarse”, *aingerutzar* “angelote”), *aire* (*airepisuaren neurria* “barómetro”), *alaja* (*alajatxo* “alajuela”), *albaka* (*albakonzi* “albahaquero”, *astalbaka* “albahaca silvestre”), *aldare* (*aldare nagusia* “altar mayor”, *aldaretxo* “altarico”), *alfanje* (*alfanjada* “alfanjazo”), *alkabuz* (*alkabuzada* “arcabuzazo”, *alkabuzatu* “arcabucear”, *alkabuzgile* “arcabucero”, *gerrari alkabuztunak* “arcabucería”), *alkaparra* (*alkaparraga*, *alkaparreta*, *alkapartegi* “alcaparral”, *alkaparra andiagoa* “alcaparrón”), *almirante* (*almirantearen onzia* “almiranta”, *almirantearen zuzenpidea* “almirantazgo”, *almirantorde* “vice-almirante”), *almoneda* (*almonedan saltzea* “almonedear”), *altare* (*altare-arri* “ara consagrada”, *altaregile* “altarero”), *amirun* (*amirundu* “almidonar”), *anakardo* (*anakardozko maneanza bat* “anacardina”), *anega* (*anegaka* “(a) fanegadas”), *apostolu* (*apostoluen batzarrea* “apostolado”, *apostoluen erara* “apostólicamente”, *apostoluar* “apostólico”), *arma* (*armagile* “armero”, *armategi* “armería”, *etxarmak* “armas en el escudo”, *suarma* “arma de fuego”...), *armatu* (*anziñako ballestak armatzeko lanabesa* “armatoste”), *artxikude* (*artxidukearen goiendea ta barrutia* “archiducado”), *arzediano* (*arzedianoaren goiendea* “arcedianato”), *atun* (*atunaga*, *atuntegi* “atunara”), *azafrai* (*azafraitegi* “azafranal”, *azafraitu* “azafranar”), *azukre* (*azukretu* “azucarar”, *azukre-ontzi* “azucarero”...).

<sup>30</sup> *Abeto*-ren ordezkariak *izai* eta haren aldaerak, denak Goi-Nafarroan hasi eta ekialdekoak dira; *azerola*-rako, *mazpil* topatu dut (Elhuyar 1996, baita oraindik sareko bertsioan ere), baina ez dait nik norainoko zehatza den (cf. *EH* eta *OEH*, s.v. *mazpil*).

## 4.2. Behin-behineko maileguak

Talde honetan sartu behar dira, dudarik gabe, honako ezaugarri hauek dituztenak:

1) Alboan hitz bakarreko euskal ordainak izatea:

*\*abade* “cura” (+*apaiz*, *apez*), *\*abendu* (+*lotazil*), *\*abilamendu* (+*soñeko*, *jazkai...*), *\*abilidade* (+*gaitasun*, *zintzotasun*), *\*abisatu* (+*mezutu*, *gaztigatu*), *\*abisu* (+*mezu*, *gaztigu*), *\*aboztu* / *abuztu* (+*agorri* / *uzta*, *uzta biltze*), *\*absolbitu* (+*askatu*, *deslotu...*), *\*abstinenzia* (+*urrijaldura*, *urrijalpen*), *adeala* (+*obaria*, *obaroa*), *\*adiba* (+*sametxi*), *\*admiratu* (+*miretsarazi...*), *\*adoratu* (+*gurtu*, *gur egin*), *adrailu* / *adrilu* (+*buztinerra*), *adua* (+*peajeleku*, *kostomaga*), *\*adulteratu* (+*iaukitea*, *bestereganatzea...*), *\*adultero* (+*bestereganari...*), *\*agradatu* (+*oniritzi*), *ailegatu* (+*eldu*, *etorri*), *ajuda* (+*siringa*), *\*ajustatu* (+*ongundetu...*), *akolito* (+*apaiz laguna...*), *akomodatu* (+*erاراتu...*), *\*akusatu* (+*salatu*, *gaizgertu*), *\*akusazio* (+*salaketa*, *gaizgertamen...*), *akzidente* (+*min...*), *alabesa* (+*lanza arabarra*), *alamar* (+*aribeguiac...*), *alarbe* (+*aberea*, *basatia...*), *alarde* (+*erregiña*)<sup>31</sup>, *albondiga* (+*arbilgeta*), *alimaña* (+*abere*), *alkoba* (+*geloi...*), *almidoatu* (+*enpesatu...*), *alportxa* (+*zakuto*, *maleta*), *amaszena* (+*damaskoar*), *amizkle* (+*zornurrin*), *\*animalia* (+*abere*), *\*animatu* (+*bi-ziarazi...*), *anime* (+*likurrin*), *\*animo* (+*alaiera...*), *apostatu* (+*paramenatu...*), *apresatu* (+*arrapatu*), *\*arbola* (+*aretx...*), *\*armada* (+*onzidi...*), *\*harmonia* (+*alasia...*), *\*arrazoe* / *arrazoi(n)* (+*eralde*), *\*arrendatu* (+*ondakarr*), *\*artemisía* (+*belar mina*), *\*atabal* (+*arratza...*), *\*azeituna* (+*oliogai*), *\*azoge* (+*zilar bizi*), *\*azotatu* (+*zealdu...*), *\*azote* (+*zeal...*), *azufai* (+*kerexanza*).

2) Baita, ziurrenik, ordain perifrastiko ez oso luzeak izatea ere:

*\*abendu* (+*Kristoren etorrera*), *\*adulterio* (+*besterenaz aragi-bekatua*; cf. goian *adulteratu* eta *adultero*), *agnus* (+*argizagizko bildotx bedeikatua*), *algebra* (+*contuen zuzen bidea*), *halifa* (+*agintari ondorengoa* = “sucesor en el ministerio”), *amirez* (+*menastazco motrairua*; cf. “(mano de) almirez, *motrailluaren*, *motrairuaren quirtena*”), *\*antekristo* (+*christoren etsaya*, *arerioa*), *azitroi* (+*zidra azukretua* = “la cidra hecha dulce”).

Ordain luzexeago hauen erabilgarritasuna A letraren hasierako adibideetan<sup>32</sup> ederto erakutsia dauka Larramendik:

*aboztu* (“Agosto, cosecha de miesses, *uztá*, *uzta biltzea*, *aboztua*. Bravo agosto les espera, *uztá ederra dagokie*, *dagokio*. Hemos hecho nuestro agosto, *geren uztá bildu degu*”), *\*administratu* (“Administrar, tratar o cuidar hazienas, rentas, repúblicas, &c. *bere contura ecarri*, *erabilli*, *arthaz beguiratu*. *Administratu*. Administra las rentas de el tabaco, *surrautsaren errentac bere contura dacartzi*, *darabiltzi*”).

3) Eta, azkenik, bestetan erabili arren, sarrerapean agertzen ez direnak, nahiz gure corpusean honek adibide bakarra izan<sup>33</sup>: *\*apostolico* (cf. “Apostólico, *apostoluarra*”).

Gertakari hauek zuzenean lotu behar dira maileguak *piskabana* ordezkatzeko Larramendiren asmoarekin: aukerak hortxe daude, alde-aldean, eta etorkizuneko erabiltzaileen esku geratzen da batera edo bestera jotzea. Baina, zein

<sup>31</sup> Egiantan, hauxe da hasieran jarritako ordain bakarra: *alarde* “item” ondokoa da.

<sup>32</sup> *HH*-an adibideok daukaten banaketa eta betebeharrak ik. Urgell (2002: § 3.2).

<sup>33</sup> Adibidea ez da nolana hokoa: mailegu hartutako erdal erlazio izenondo bakarra dugu corpusean (cf. Urgell 2003: § 2.7).

mailegu mota dira? Teorian, behin-behineko 68 mailegu hauek (etimologiak azaltzen ez dituenen %51,1) Larramendik “behargabekoak” deituak berak balira, neurriren batean euskaraz ohiko bilakatuak lirateke, ordain jatorragorik egon arren. Lehen baldintza ez da gaizki betetzen: gure lekukotasun urrien arabera 36 (%52,9) lehenago lekukotuta daude. Alabaina, bigarrenarekin arazo gehiago dukegu, ezen *apaiz*, *soineko*, *agorri*, *obari*, *mirretsarazi* edo *gurtu* bezalako ordainak ugari badira ere, bildutako zenbaitenak –*urrijaldura*, *sametxi*, *buztinerra*...– argi eta garbi hitz berriak baitira. Badirudi, beraz, *abstinenzia*, *adiba* edo *adrailu* bezalako maileguak beharrezkoetakoak zirela, baina Larramendik –mesfidantzak aurreratu bezala– egokiera profitatu zuela proposamen berriak egiteko, “no ha avido bascongado que fabrique voces propias y acomodadas al carácter de su lengua” bere esana gezurtatzen hasita.

Bestalde, ez ditu denak berdin erabiltzen *HH*-an; ordezkaterakoan abiadura ezberdinak egon zitezkeela aurreikusitako bide zuen, beharbada mailegu ohikoenei edota ordezkatzeko zailenei erauzkaitz iritzirik:

1) Astiro ordezkatzekoak bide dira (eta *nahi badegu* iruzkina hobekien dagoenak, ziur aski) sarrera gehiagotan agertzen direnak, sarri elkartu-eratorri familia osoak eraturik ere:

*abade* “clérigo”, “cura”, “presbítero” (*abadetar* “clerical”, *abadetu* “(hazere) clérigo”, *abadetxar* “cleriguillo”), *abisatu* / *abisu* (*abisukida* “comonitorio”, *abisu-ontzi* “(navío de) aviso”), *aboztu* (*aboztuki* “agostizo”), *absolbitu* (*absolbigarri* “absolvederas”, *absolbitze*, *absolbizio* “absolución”), *adoratu* (*adoragarri* “adorable”, *adorategi* “adoratorios”, *adoratzaile* “adorador”), *adrailu* (*adrailada* “ladrillazo”, *adrailola* “ladrallal”), *adrilu* (*adrilada*, *adrilkada* “ladrillazo”, *adrilari* “enladrillador”, *adrilatu* “enladrillar”, *adrilola* “ladrallal”, *adrilukintza* “froga”, *adrilutxo* “ladrillejo”), *aduan* (*aduanazai* “aduanero”), *ajuda* (*ajuda maskuria* “gaita”, “mangueta”), *akusatu* (*akusaera* “acusación”, *akusatzaile* “acusador”), *algebra* (*algebraria* “algebrista”), *alkoba* (*alkobatxo* “alcobilla”), *amizkle* (*amizkledun* “almizcleño”), *animalia* (*animaliatxo* “animalejo”, *animaliatzar* “animalón”), *animatu* / *animo* (*animokiro* “animosamente”, *animotsu* “animoso”), *arrazoi* (*arrazoi gereztarra* “razón natural”, *arrazoiez* “(con) razón”, *erakarri arrazoiren batzuek* “alegar”, *arrazoibage* “desenrazonado”, “irracional”, *arrazoibagero* “irracionalmente”, *arrazoi-usu* “uso de razón”), *arrendatu* (*arrendaera* “arrendamiento”, *arrendatzaile* “arrendador”, “publicano”), *azotatu* / *azote* (*azotaldi* “azotina”, “(una vuelta de) azotes”, *azotatz* “vapulamamiento”, *azoteki* “azote, golpe”).

Talde honetan aurkitzen ditugu mailegurik ohikoenetako asko, jakina.

2) Izan zezaketen baino familia txikiagoa dutenak, berriz, badirudi ordezkazkoen erabilera joko zutela:

*administratu* (*administratzaile* “administrador” vs. *beguiranza*, *bere contuan ecartea*, *erabiltea*, *beguiratzea* “administración” < *bere contura ecarti*, *erabili*, *arthaz beguiratu* “administrar”), *akomodatu* (*akomodagarri* “acomodable” vs. *zucenbidea*, *éraz*, *erara jartea* “acomodamiento” ~ *erarratu*, *norbaiti bere zucenbidea ematea*; *bere erara ifintea*, *paratzea*, *norbait zucenbidetzea* “acomodar”), *arbola* (*arboladi* “arboleda” vs. *amodio zuaitza* “árbol del amor”, *paradisuz zuaitza* “árbol paraíso”, *zuaitzaina* “arbolista”), *atabal* “atabal”, “tambor” (*atabalari* “tambor, el que le toca” vs. *arrazaduna*, *arrazcoduna* “atabalero”), *azoge* (*cillar biciz*, *azogez estali* “azogar” vs. *cillar biciaz estalia* “azogado”).

Kontuan hartzekoa da oso, hauetako zenbaiten familia txikia tradizioetik eskuratutakoa dela: *administratzaile*, *administrazale* itxuran, Leizarragak dakar, esan bezala; *arboladi*, berriz, Etxeberri Ziburukoak.

3) Familiako sarreretan agertzen ez direnak, esan daiteke Larramendik *HH*-aren bitartez ordezkatzeko hasiak zirela:

*abilamendu* (*janci*, *jaunci*, *beztitu* “vestir”, *jancialdia*, *jazcai* osoa “vestuario, vestidos”, *janciechea*, *jancilecua*, *jazteguia* “vestuario, donde se viste”), *abilidade* (*gay*, *ajutuá*, *cintzoa*, *entregú* “abil”, *cintzotu*, *gay eguin* “abilitar”, *gayró*, *cinzoró*, *cintzoqui* “abilmente”) <sup>34</sup>, *abstinenzia* (*pecatutic*, *jocotic*, *ardotic gordetzea*, *beguiratzea* “abstenerse”, *urrijalea*, *urrijaria*, *guichi jaten deuaná* “abstinente”), *admiratu* (*miragarria*, *arrigarria* “admirable”, *miragarriro*, *arrigarriro*... “admirablemente”, *mirestea*, *arritzea*, *miraria*... “admiración”, *mireslea*, *mirarizlea* “admirador”), *agradatu* (*otzana*, *onirizgarria*, *emaguria*, *naicaria* “agradable”, *emaguriró*, *onirizgarriro* “agradablemente”, *emaguria*, *gracia oná*, *aurpegi gozoa*, *beguitarte arraya* “agradado”), *ailegatu* (*eldera*, *etorrera*, *llegada* “llegada”) <sup>35</sup>, *ajustatu* (*ongondea*, *ongundea*, *eguiunea* “ajuste”), *akzidente* (*eritua*, *miñac artua*, *miñez dagoana* “accidentado”), *apostatatu* (*temá*, *paramena* “apuesta”), *harmonia* (*alositua*, *alosituna*, *bozaroquitsua* “harmonioso”), *azeituna* (cf. *oliboa*, *oligaya* “azeituno”).

Behin-behineko maileguei buruz Larramendik zeukan iritziaren ez eze, bere asmoari laguntzeko erabili zuen arretaren lekuko ezin hobekak dira A letraren hasierako hitz askotan aurkitzen ditugun adibideak zein oharrak; gorago jadanik ikusi ditugu ordain perifrastikoa, luze xamarra izan arren, nola erabili behar den erakusten duten halako zenbait; alde honetatik ere ez du era batera jotzen mailegu guztiekin:

1) Adibideen artean mailegua ere agertzen da:

Acomodan bien a sus hijos, *ondo acomodatzeko dituzte beren humeac; zuzen bide ona ematen die beren semeai, ondo zuzen bidetzen dituzte* (s.v. *acomodar*).

Acúsome de todos mis pecados, *salatzeko ditut nere pecatu guciac, acusatzen naiz nere pecatu guziezaz* (s.v. *acusar*).

2) Adibide edo oharrean mailegu ez dena bakarrik azaltzen da (cf. gorago *aboztu* eta *administratu*-ren adibideak ere):

*Agradar, oniritzi, agradatu*...

NOTA. Este verbo *oniritzi* tiene su construcción particular con el irregular del verbo *iritzi*. *On derizquidac, derizquidan, derizquidazu*, tú me agradas (...). Véase la palabra *iritzi* en la palabra *parecer*.

*Apostar, apostatú, paramenatu, ispichoñatu, paramena, tema, ispichoña eguin*...

Qué quieres apostar? *Ceren paramena eguin nai dec? Cer naic temá? Quánto quieres apostar? Cembaten paramena eguin nai dec?* Yo quiero apostar cien pesos, *eun ezcuturen paramena eguin nai det, eun ezcutú dijoa tema.*

Puede apostárselas a cualquiera, *edoceñequin paramena dezaque.*

<sup>34</sup> *Hábil*-en familia, *HH*-an grafia dela eta errepikatuta daudenetakoa da (cf. Urgell 1999: § I.5) eta *abilidade* <h> gabeko agerraldian bakarrik agertzen da: “Hábil, *gai*, *cintzoa*, *entregu*”, “Habilidad, *gaiquera*, *cintzoera*, *entregudea*”, etab. Gainerakoan, ikus daitekeenez, oinarrizko ordainak berak dira, *ajutu* izan ezik.

<sup>35</sup> Ez dakit nola interpretatu behar den *llegada* mailegua agertzea, *ailegatu*-ren familiakidetzat jo behar dugun ala ez: corpus zabalago baten arabera epaitu beharko.

3) Adibidean mailegua agertzen da, baina ohar berezia eskaintzen zaio mailegua ez denari:

Adorar, *adoratú, gurtu, gur eguin* (...). A solo Dios hemos de adorar: *Jaincoari bacarric gurtu bear gatzaiizca; Jaincoa bacarric adoratu bear degu, beaugu; Jainco bacarrari gur bear diogu, gur eguin bear zayo* (...). NOTA. *Gurtu* y *gurcartu*, que significan adorar y vienen de *gur, cur*, reverencia, inclinación, tienen distintas terminaciones. *Gurtu* pide las transitivas de el neutro: Yo adoro a Dios, *gurtzen natzayo Jangoicoari*; tú le adoras, *gurtzen zaitzaizca*; aquél le adora, *gurtzen zayo*, &c. Pero *gurcartu* activo, pide las terminaciones transitivas de el activo, *gurcartzen zaitut*, te adoro, *gurcartzen det*, yo le adoro, *gurcartu du*, le ha adorado.

## 5. ETIMOLOGIADUN MAILEGUAK

### 5.1. Etimologiadun maileguen familia

Zalantzarik gabe, etimologia mailegu bermatzaile handia da, berak bakarrik, beste gabe, corpusaren erdia baino gehiago azal baitezake. Haren eragina, dena dela, zenbaki hutsek adieraz dezaketen baino handiagoa izan da. Hasteko, etimologiaduntzat hartu ditugun hitzak ez dira denak item bakartuak; aitzitik, maiztasun aipagarriaz familia bereko hitz bat baino gehiago, bi eskuarki, etimologia berak zilegiztaten ditu:

abarkatu (< abarka), agasajatu (< agasajo), aitzakiatu (< aitzakia), alabatu (~ alabanza), alborada, alborakia (~ alba), algarabia, algarada (< algara), alkanzatu (~ alkanze), altzadura (~ altzatu), anden (< anda), arrakada, arrankatu (< arraka), arrasatu (< arras), arrasgo (~ arrasgatu), arrasteatu (< arras-to), arropa (< arropatu), asmadura (< asmatu), atxakiatu (< atxakia), azen-datu (~ azienda).

Hau egiteko bide ezberdinak baliatu ditu hiztegiak, dela bata bestetik eratorriaz:

Abarcar, viene de el Bascuence *abarcá*...  
 Agasajar, de *agasajo*, y esta voz de el antiguo Castellano *gasajo*, cuyo origen puede ser de el Bascuence...  
 Algarabía (...) es voz puramente Bascongada, compuesta de *algara*...  
 Algarada, (...) es vor puramente Bascongada, de *algara*...

dela batetik besterako bidalketaz:

Achacar, viene del Bascuence, como se verá en la palabra siguiente [i.e. *achaque*].

Alba, cercanía de el día y de el Sol, viene de el Bascuence *alboa* (...) y se conoce mejor en la palabra *alborada*, que tiene la misma raíz.

dela etimotzat euskarazko familiakideak emanaz:

Alcance, puede venir del Bascuence *gaintze*...  
 Alcanzar, viene del Bascuence *gainzatu*...

edo dela ebidentzia bere eginez, beste gabe:

Alabar, es del Bascuence.  
 Hacendar, viene de el Bascuence.

Horrez guztiaz, ez du beti agerian azpimarratzen itxura guztien arabera aski maiz erabili duen bidezidor hau; izan ere, parentesi artean doan familiburuaren etimologia da, inondik ere, corpuseko beste 29 mailegu, denak ageriko etimologia gabeak, zuritzen dituen argudio nagusia:

abrigu (abrigatu), alegere, alegeria (alegeratu), alkiler (alkilatu), almendrada, almendrua (almendra), amarra (amarratu), amore (amorio), angustiatu (angustia), anparo (anparatu), ahorrua (ahorratu), apart, aparte (apartatu), arpista (arpa), arrabiatu, arrabieta (arrabia), arraiatu (arraia), arrasgetatu, arrasgoi (arrasgatu ~ arrasgo), arrasila, arraso (arras), arraskadura (arraskatu), arrimatu (arrimua), arrokaila (arroka), arropaje, arropila, arropoi (arropa), artista (arte), azañeria (azaña).

Jakina, arrazoi gehiago ere aipa daitezke hitz hauen guztien onarpena azaltzeko. Ugarietak eta hartzen goxoenak *-ar > -atu* aditzak dira, eta ziurrenik Larramendik berak –batzuetan agerriki adierazi bezala– “mailegutzat” baino euskararen barruan sortutakotzat izan zituen, *-e, -o eta -u > a* egiten bazekien eta. *HH*-ko hainbat gertakari atzeranzko eratorpenaren esparruan azaltzen direla jakinik (cf. Urgell 2008b), bestalde, behin aditzari etimologia emanaz gero haren oinarria ere aintzat hartzea espero dugu (*abrigu, alegere, amarra, anparo, ahorrua, apart(e)*). Gainerakoetatik batzuk atzizkia ere euskarazkoa delakoan osorik hartutakoak dira (*alabanza, alegeria, algarada, almendrada, altzadura, arrakada, arraskadura, asmadura* eta *azañeria*; cf. Urgell 2003); pare bat, azkenik, familia-ko oinarriaren sasi-elkartuak ditugu: *alborada* (“...de *alborada*, ya se ha acercado...”) eta *algarabia* (“...compuesta de *algara* grito descompuesto, y de *abiatu* empezar...”). Hala ere, denak ez dira halakoak, eta are zenbaitek euskarak azal ezin ditzakeen atzizki nabarmenak (*arpista, arrabieta, arrasgoi, arrasila, arrokaila, arropaje, arropila, arropoi, artista*) edo hots-txandakatzak (*alkiler / alkilatu, almendra / almendrua, anden / anda*<sup>36</sup>, *arrasgetatu / arrasgatu, arraso / arras, arrasteatu / arrasto, azendatu / azienda*) aurkezten dituzte.

## 5.2. Etimologiadun maileguen izaera

Gorago aldeztu dudak bezala, etimologiadun maileguk, Larramendiren sisteman maileguak ez direlako, hain zuzen ere, ez lukete hauek onartzeko ezarri zituen baldintzen pean egon behar; halaz ere, ezin uka daiteke etimologiari esker jadanik lekukotuta zeuden mailegu talde handi xamar baten jabetza (%47) euskarari bihurtu ziola, haien euskaltasuna bermatuz.

Kopurua ez da txantxetakoa: etimoak hautatzerakoan iruzur gutxi –uste ohi den baino gutxiago, behinik behin– egin zuela adieraz dezake baina, eta hau da atalxo honen xedea, ehuneko ehuna aztertzea eskatzen du, etimologiaren bitartez bermatu zituen eta, nahi gabe bada ere, berriki sartu zituen maileguen arteko muga non dagoen ezagutzeko.

Euskarak jadanik beretua zuen hitz taldearen lehen mailan, oinarritzkoenean, gaztelaniaz eta euskaraz esanahi ezberdina daukaten maileguak kokatu behar ditugu:

*abere* “animal”, *abia* “jaula”<sup>37</sup>, *abiatu* “comenzar”, *adobatu* “remendar”, *algara* “carcajada”, *amorratu* “rabiar”, *anpulu* “gota”, *arras* “cerca”, *azenia* “rodete de molino”.

<sup>36</sup> Ez eta erdarak ere, bikote honen kasuan: *BDELC*-aren arabera, etorki ezberdineko hitzak dira.

<sup>37</sup> Larramendiren gaizki-ulerturen batek sortua bide da.

Honelakoak, gartzelaniazko hitzen etimologian erabili arren, ez ditu inoiz haien ordaintzat hartzen<sup>38</sup>. Etimologia eta maileguak, beraz, ez doaz batera ezinbestean: bistan da hain mailegu irentsiak –mailegutzat izan balitu– ez ziztuzkeela arbuaiatuko, baina, eta hauxe da interesgarriena, esanahi aldaketak etimologiaztatutako hitzaren ordaintzat hartzea zeharo oztopatu du. Gehienera jota, kasu bakar batean dakusgunez, ordain gisa mailegu berria (lehenago ez lekukotutakoa eta, nolana ere, etimoa baino berriagoa) agertzen da:

Ampolla, viene de el Bascuence *ampulua*, que en un dialecto significa gota redonda. *Ampollá*.

Bigarren mailan koka genitzake ahaideak izateaz gain elkarren ordainak di-  
relarik, euskaraz sustraituta daudenak edo, gorago erabilitako hitzak errepika-  
turik, euskarak beretuak, ohikoak eta ulergarriak. Honelakoak zein diren ze-  
hazki mugatzeko ditugun baliabideak eta arazoak jadanik aipatu ditut. 1745  
baino lehenagoko lekukotasun idatzirik ez duten baina lekukotasun dialektal  
modernoek bermatzen dituztenen artean ondokoak azpimarratuko nituzke<sup>39</sup>:

*ailorbe* (Iz ArOñ, Etxba *Eib*, Asp *Leiz*), *aldamio* (Azk, LzG), *aloza* (Azk, Iz ArOñ), *amorratu* (Azk, Iz ArOñ), *anpulu* (Azk), *aroi* (Azk), *arrakatu* (Azk, Asp *Leiz*), *arratoi* (*EI*, Etxba *Eib*..), *asensio* (Azk), *hatu* (Azk), *azenia* (Azk).

Nolana ere dela, esan behar da Larramendik etimo gisa erabilitako guz-  
tietarako ez dugula bestelako bermerik erraz erdietsi. Adibidez, *amirez*-en ka-  
suan, baliagarria izan daiteke *amizkle*-k ere erakusten duen *m* aurreko *l*-aren  
galera, hitzak itxura ezberdinetan izan duen zabalkundea ahaztu gabe (ik.  
*OEH*, s.v. *almeriz*). Bigarren argudio honek lagun diezaguke *alborakia* “albo-  
roque” kokatzen: lekukotasun ezberdinek hitza Bizkai-Gipuzkoa-Nafarroetan  
ezaguna dela edo izan dela dioskute (*OEH*, s.v. *alboroke*), nahiz beti jatorrizko  
-o- gordez (*alboroke*..); Larramendik etimologian *-ki* atzizkia dagoela aditzera  
ematen badu ere<sup>40</sup>, egiantz handiaz esan dezakegu berak gaizki interpretatu  
zuen *-ea > -ia* baten aurrean gaudela. Itxurak bermatzen du, azkenik, *azitrai*,  
ezin baita zuzenean gazt. *ajedrea*-rekin lotu, hurbilago dauden okzit. *sadreja*  
edo cat. dial. *sadoriya*-rekin baizik (cf. *MDELV*, s.v.). Gauzak honela, zer esan  
dezakegu itxura berezia daukaten baina beste bermerik ez duten *abroila* “am-  
brolla”, “hadrolla”, *agorrea* “gorra” edo *ainuskatu* “añusgar”-i buruz? Hona La-  
rramendik ematen dizkigun bermeak:

Ambrolla, es de el Bascuence *abrolla*, que significa engaño en comprar y vender, y véase su origen en la palabra *hadrolla*.

Gorga, comida de las aves de cetrería, es voz contrahída de el Bascuence *agorguea*, que significa lo mismo; aunque oy se llama *agorguea* en muchas partes a aquella comida con que ceban por fuerza y a la mano a los capones y otras aves.

Añusgar, añusgarse, atragantarse, viene de el Bascuence *añusca*, traga-  
dera.

<sup>38</sup> Gaur egun, dakidalarik, ezaguna ez den arren, badirudi talde honetan sartu behar dela *artxa* “harpón” ere, zeren eta gazt. *archa*-ren euskal ordaina *archariaren aizcora* baita, *archero archari* bada ere.

<sup>39</sup> Datuak eta laburdurak *OEH*-koak dira, beti bezala, Azk (=Azkue) izan ezilu. Xehetasun gehia-  
gotarako, ik. Urgell (2000c).

<sup>40</sup> Atzizkiak edonon harrapatzeko jadanik azpimarratu dugun joeraz.

Hirugarren mailan, berriz, benetan etimologiak zilegiztatu dituen maileguak bildu beharko genituzke, hots, etimologia izateagatik onartu dituen berririk edota gutxi erabilitakoak. Adibiderik argiena *alhurreka* da, “me suena a palabra bascongada” esate hutsaz ordainen artean agertzeko gaitasuna erdiesten baitu. Hemendik aurrera oso zaila da ohikoak eta ohiz kanpokoak ziren maileguen artean bereizketa argiak egitea; dena dela, *abilantez*, *añagaza*, *añaze*, *añazme*, *alaraka*, *aleatu*, *algarabia*, *alkaizeria*, *amaño*, *anaskote*, *andurrial*, *ankon*, *argana*, *arguitu*, *aribatu* edo *atarazana* bezalakoak nekez sinets daiteke erabilerak zuri ditzakeenik. Are gutxiago, beharbada, etimologi azalpenaren bitartez itxura jakin batean hartu dituen maileguak: *angara* “angra” (< *an gara*), *atisbeatu* “atisbar” (< *atis* [< *ateis* < *ate ichi*] + *beatu*).

### 5.3. Etimologiadun maileguen erabilera

Behin baino gehiagotan markatu dut dagoeneko etimologia izateak ez duela nahitaez erabilera ziurtatzen; nolana ere den, Larramendik erabili zituenetatik anitz (90 orotara, ia erdiak) sarrerako euskal ordain bakarra dira, hots, mailegu beharrezkoen pare-parean koka ditzakegu baina, etorkiz euskarazkoak izanik haren ustez, sekula ordezkio jatorragorik bilatu beharko ez zaie-lako abantailarekin:

abarka, adala, adarbe, adarga, agorgea, ailorbe, añagaza, añaze, añazme, aingira, aingura / angura, alabarda, alabastro, alabe, alaga<sup>41</sup>, alambre / arambre, alaraka, alberdania, albiriste / albiste, alborada, alborakia, albornia, albornoz, aldamió, aldea, alferesia, algarabia, algarada, alkaizeria, alkandora, alkarabea, alkarra(t)za, alkate, almea, almena, almendra, aloza, alpiste, altxatu / altzatu, altzairu, amaño, amodio / amorio, anaskote, anda, anden, angarila, ankon, anpoila, ardit, argana, arguitu, arlekin, arlote, armario, armioño, arpa, arpeo, arpia, arpillera, arraian, arraketa, arralea, arrasatu, arroba, arroka, arronzatu, arrope, arrosa / larrosa, arroz, arteria, artimaña, arzoi, asensio, asma, asmadura, asmatu, atakatu, atrakatu, hatu, azabra, azagaia, azaia, azitrai, azuzena.

Hauekin batera aipatu behar dira etimologiarekin lotutako ordainak baizik ez daramatzaten sarrerak, eskuarki mailegua eta etimoa edo etimoarekin lotuago dagoen forma bat:

alkarraza, alkarratza (< *garratza*); an(t)zerra, an(t)zarra (< *aoanzerra*); arrestu, arrestutu, arrestatu (< *ar(tu)* + *estu(tu)*); arrotzatu, arrotzitu (< *arro* + *otz*); azendatu, azenduatu (cf. *azienda* “hacienda”); azienda, aziendea, aziendoa (< *azien doa* edo *doia*); azuga, atzura, azura (< *atzi(tu)* + *ura*).

Esan gabe doa, etimologiak erdal familiakide zenbait hartzeko bidea emateaz gainera, honela berreskuratutako hitzek elkartu-eratorriak izateko aukera daukatela *HH*-an:

*adarga* (*adargaztatu* “adargarse”), *añaze* (*añazatu* “feriar”), *aingura* (*aingura sari* “anclaje”, *ainguratu* “anclar”), *alabarda* (*alabardada* “alabardazo”, *alabardari* “alabardero”), *albiste* (*albiste-sari* “albricias, regalo”), *albornoz* (*albornozko capa* “albornoz, capote”), *alkandora* (*alkandoraxo* “camiseta”, *alkandoratzar* “camisón”), *almendra* (*almendradi*, *almendregi* “almendral”,

<sup>41</sup> Alboan *gari mota bat* (= “especie de trigo”) azalpena baino ez darama.



*almendrari*, *almendrategi* “alozar”), *altxatu* (*altxakizun* “levadizo”, *altxari* “levantador”, *altxate* “erección”...), *altzatu* (*altzaera*, *altzatze* “alzadura”...), *altzairu* (*altzairugile*, *altzairugin* “fabricador de acero”, *altzairukintza* “(el oficio de fabricar) acero”, *altzairutu* “acerar”...), *angura* (*anguratu* “ancorar”), *aranbre* (*aranbruztai* “guarda infante”, “tontillo”), *arrosa* (*arrosatu* “enrosar”, *arrosti* “rodomet”), *azitrai* (*azitrailora* “epithymbra”)...

Etimologiak bermatutako maileguen ordaintasuna sendotua ateratzen da, bestalde, sarrera ezberdinetan agertzen direnean; batzuetan –aukeraren arabea– oso nabaria da ez direla txantxetako ordainak (cf. *aitzakia*, *aitzakiatu*, *akabatu*, *alabatu*, *altxatu*, *angurria*, *antsia* eta *ardit*, adibidez), oso kontuan hartze-koak baizik:

*abarka* (+“alborga”), *aberia* (+“gasto”), *adreztu* (+“arreglar”, “reglar”), *añaze* (+“feria”), *añazme* (+“manilla”), *aitzakia* (+“callejuela”, “color”, “disculpa”...), *aitzakiatu* (+“disculpar”, “excusar”, “pretextar”), *akabatu* (+“concluir”, “terminar”), *alabanza* (+“elogio”), *alabatu* (+“elogiar”, “laudar”, “loar”), *almendra* (+“alozza”), *alozza* (+“tomado”), *altxatu* (+“elear”, “empinar”, “encaramar”, “erigir”...), *altzatu* (+“enarbolar”, “levantar”), *amatu* (+*xit amatu* “carísimo”), *amodio* (+“afición”, “amor”), *amorio* (+“amor”), *andana* (+“hileria”), *angurria* (+“badea”, “sandia”), *anparatu* (+“apadrinar”), *antsia* (+“aflicción”, “agucia”, “ahogo”, “angustia”...), *antzar* (+“ansar”), *apartatu* (+“separar”), *ardit* (+“óbolo”, “ochavo”), *argana* (+“argano”), *arguitu* (+“argumentar”, *bidaurrezcoz arguitu* “silogizar”), *aribatu* (+“harbar”), *armario* (+“alacena”), *aroi* (+“haragán”, “ocioso”), *arpoi* (+“abrazaderas”, “cantonera”, “grapa”, “manija”), *arraia* (+“chaza”, “venero”), *arraka* (+“abertura”, “hendedura”, “portillo de muralla”, “quiebra”...), *arrapatu* (+“agarrar”, “arrebatar”, “engarrifar”...), *arrasatu* (+“demoler”, “destruir”, “estragar”), *arrasto* (+“assomo”, “xazilla”), *asmadura* (+“asmamiento”), *asmatu* (+“acertar”, “adivinar”, “atinar”...), *atrebitu* (+“osar”), *atxakia* (+“excusa”, “pretexto”), *autatu* (+“elegir”, “escoger”, “señalar”), *azabra* (+“fragata”), *azagaia* (+“arma arrojadiza”, “arrojadizo”, “dardo”), (*h*)*azaña* (+“proeza”), *azenia* (+*azenia uguetatu* “reboñar”), *azertadu* (+“acontecer”, “suceder”).

Dena dela, euskal hitz zaharra izateak ez du kentzen artean bestelako esanahikideak ere egotea, noski. Larramendik aukeran eskaintzen ditu, dagokien bezala:

*abarkatu* (+*gauz asco eguitea*, *artzea*), *abere* / *abre* (+*animalia* “animal”, +*atzienda* “bestia”, +*elea*, *elia* “ganado mayor”, +*zamari* “jumento”...), *aberia* (+*calte*), *abiatu* (+*asi* “comenzar”), *abilantex* (+*osadia*, *atreventia*), *aboilatu* (+*zacondu*, *zocondu*, *mallatu*, *maliatu*, *coscatu*), *adobatu* (+*onguitu*, *antolatatu*, *alogatu* “remendar”), *akordatu* (+*oroitu*, *comutatu*), *alabanza* (+*doandigoa*, *laudorioa*), *alabar* (+*doanditu*, *laudatu*, *laudariotu*), *alba* (+*eguanzá*, *egunsentia*, *eguairea*, *arthatsá*, *arguiaren beguia*), *apiril* (+*jorrailla*), *area* (+*ondarra*, *legarra*), *azertadu* (+*suertatu*, *guertatu*)...

Etimologiak bermatutako maileguen erabilera elkartu-eratorrietan ere sustatzen da:

*abere* (*aberedi* “atajo de ganado”, *aberegisako* “bestial”, *aberekeria* “bestialidad”, “brutalidad”, *aberekiro* “bestialmente”, “brutamente”...), *abre* (*abrear* “bestial”, *abrebasle* “quatrero”, *abredari* “bregage”, *abrekeria* “bestialidad”, “brutalidad”...), *aboilatu* (*abollantza*, *abollatze* “abolladura”, *abollari*, *abollatzalle* “abollador”), *adobatu* (*adobaketa* “embón”, *adobaki* “remiendo”, *adobatzaille* “remendón”)...

Inoiz, baita adibide, atsotitz edo bestelako sarreretan ere:

*abarkatu* (“Quien mucho abarca, poco aprieta, *asco abarcatzea, da guichi estutzea*”), *akordatu* (“Acuérdame, *oroit nazazu, comuta eguidazu, acorda zadazu*”), *alabanza* (“*alabanza gucien diña da*, es digno de todas las alabanzas”, s.v. *digno*), *alabatu* (“Hasta los enemigos le alaban, *are etsayac, etsayac ere, arerioac bere alabatzen deue, daue, duté*”, s.v. *hasta*; “Aleluya, *eleizan dioguna, esan nai du, alaba ezazue Jaundá*”), *albenda* (“Albendera, texedora de albandas, *albendaquiña, albandaguilleá, albanden eulea*”), *apiril* (“Por abril aguas mil, *Apirillean euri betean*”), *azertadu* (“Acertó a pasar por allí, *suertatu, acertadu zan andic igarotzea*”).

Hasiera batean behintzat, etimologiak bermatutako hitzak gainerako euskal hitzak bezalaxe dabilta *HH*-an, hiztegiaren gogara –edo bere oroimenaren arabera– agerraldi gehiago edo gutxiago erdietsirik esanahikideetan. Halaz ere, lau gertakari berezi atzeman ditut azterketan eta, beharbada euren esangura osoa adierazten jakingo ez badut ere, baderitzat komeni dela astiro begiztatzea, nahiz eta *HH* osoaren gainean bakarrik neurtu ahalko den, nik uste, zernolako eragina daukaten oro har etimologiak bermatutako hitzetan.

1) Eskuarki alderantziz gertatzen den arren, gorago ikusi bezala, hitz horietako batzuk ez dira familiakideetara hedatzen:

**ALBOROTO:** *alborotoa, arazoa, asalda, cegarrega, autsi abartza* “alboroto” vs. *arazoz, cegarregaz, naasiro* “alborotadamente”, *nascaria, autsi abartzallea* “alborotador”, *arazotu, asaldatu, autsi abartzatu* “alborotar”.

**ALBOROZO:** *alborozoa, arazo gozoa, poza, pozaldia, bozcario andia, sendagalla* “alborozo” vs. *poztu, bozcariotu, pozez, bozcarioz, atseguñez bete* “alborozar”.

**ALERTA:** *egon alerta, artaz egon, contuan egon, esnatua, inazarria, ernaya, ernari egon* “alerta, estar alerta, estar con cuidado y vigilancia” vs. *artatsua, esnatua, ernaya, ernaria, inazarria* “alerto, cuidadoso, vigilante”.

**ARROJO:** *oldarria, arrojua, atrevindea, aurtiquiera* “arrojo”, *atrevindea, errua, aurtiquiera, arrojua* “arrojamiento” eta “Arrojar, viene de *arrojo*, y esta voz es puramente Bascongada...” vs. *bota, egotzi, iraitzi, aurtiquitu* “arrojar”, *atreviquire, erruquire, atrevindez, erruz* “arrojadamente”.

**ASOMATU:** *assomatu, aguertu* “assomar”, *assomatua, aguertua* “assomado” vs. *agueria, aguertua* “assomada”, *aguericho, aguertucho* “assomadita”.

Betiko interpretazioa –alegia, noizbait euskal hitza izanak ez duela esan nahi gaurko euskararen premiatarako nahitaz erabili beharrekoa denik– eman dakiokeen arren, halaz ere, aipatzekoa da *alborozo* eta *alboroto* izan ezik hitzok *EGH*-an berragertzen direla: hauei dagokienez behinik behin, ziur egon gaitzke, beraz, erabiltzeko eta erabilarazteko prest egon zela Larramendi.

Bigarren azalbidea, euskal ordainen ugaria izan liteke, hots, sarrerak gehiegi ez luzatzeko aukeraketa zenbait egin behar eta etimologiadun hitza, besteak beste, galduan atera izana. Baliteke, baina ez dirudi *EGH* eta *HH* beti irizpide berari atxikitzen zaizkionik: hau hobeto aztertu beharko bada ere, kontua da batzuetan euskara-erdara hiztegiak ez dituela hitz batzuk jasotzen (*abadia, abanino, abarkatu, abrigatu, abroila, agasajatu...*), baina itxuraz jaso beharko ez lukkeen bat badakar, ostera, hala nola *atisbeatu* etimoa, *HH*-ko ordainen artean ageri ez dena:

“Atisbar, viene de el Bascuence, *atisbeatu...*” vs. “Atisbar, *beguietsi, celatatu*”, “Atisbado, *beguietsia, celatatu*”, “Atisbador, *beguietsia, celataria*”.

2) Honelako hitzak ordain bakarrak ez direnean, maiz –maizegi, agian, aintzat ez hartzeko– ordain perifrastikoak dira aldamenekoak:

*abarkatu* (+gauz asko egitea, artzea), *ademan* (+adimena [etimoa], *siñuz ta queñuz aditzera ematen dana*), *ainuskatu* (+ecin iretsiric guelditu), *alabastro* (+marmolen motaco arri churi bat), *alaga* (+gari mota bat ~ “especie de trigo”), *albenda* (+albandia [etimoa], *eunezco, ari, sarezco oa jancia*), *aleatu* (+cillarra edo urrea nahastu, *nahassi* ~ “mezclar o fundir Plata u Oro...”), *alferez* (+bander-eramallea ~ “el Cabo que lleva la vanderá”), *alkabala* (+gauza salduetatic pagatzen dana vs. *alcabaletaco liburua* “alcabalatorio”, *alcabalaria, alcabalen zaia* “alcabalero”), *arratoi* (+erratoya, *sagu andia* ~ “ratón muy grande”), *arropatu* (+arropaz estali, *estaldú; arropatua, arropaz estalia* “arropado”).

Haietako batzuk nabarmenki ordaintzat baino, definiziotzat errazago har daitezke (cf. *alaga*-ren zehazgabetasuna eta *ademan, alabastro* edo *alkabala*-ren luzea); uste horretan sendotzen gaitu, gainera, anitzetan ordaina delakoa gaztelaniazko azalpenaren itzulpena izateak (*alaga, aleatu, alferez, arratoi*). Honek bi esangura ezberdin dauzka: alde batetik, aukera bakartzat eskaintzen diren honelako hitzen portzentaia zertxobait igotzen du; bestetik, Larramendik euskal definizioak (cf. Urgell 2001: § 3.1.1) batzuetan behintzat oso zeregin zehatza-rekin baliatu zituela erakusten digu: berak euskarazkoak direla uste izan arren, bere herritarrek erabat ahaztu dituzten hitzak eurek ulertzeko moduan azaltzea, hain zuzen.

Euskal lexikografiaren historiaren aldetik, zilegi bekit berriz esatea halako definizioek daukaten garrantzia, ez baitagoke antzekorik XX. mendera arte. Eta *HH*-aren ikerketaren aldetik, berriz, Larramendik egindako mailegu berriak seinalatzen laguntzen digute, apika.

Dena dela, bistan da bildutako adibideen artean askotariko gauzak daudela: *bander-eramallea*, esaterako, azalpenaren itzulpena izan arren, ordain egokia izan liteke, jakina. Luzexeago eta korapilotsuago diren besten zenbait ere Larramendik adierazita utzi zuen nola erabil daitezkeen eta, hurren jarriko dudan adibidean argi antzeman daitekeenez, sarritan euskaraz ohikoagoak diren aditz perifrasiak nagokie batez ere:

*nor bait ondo artzea, gozoro tratatzea, agasajatzea* “agasajar”.  
*ondo artua, gozoro tratatua, agasajatua* “agasajado”.  
*chitez ondo artu ninduten, guciz gozoro tratatu ninduan* “agasajome muy mucho”.  
*ondo artzallea, gozoro tratatzallea, agasajatzallea* “agasajador”.  
*ondo artzea, gozoro tratatzea, agasajatzea, verbales, agasajoa* “agasajo”.

3) Honelako hitzen alboan batzuetan hitz berriak aurkitzen ditugu; aztertugabeko letretakoak izan ohi direnez gero, kontuz jokatuko dut, nabarienak bakarrik jasoaz:

*abrigatu* (+nozgetu), *aberia* (+oncaldá), *aitzakiatu* (+obenquetu “disculpar”), *alabanza* (+doandigoa), *alabatu* (+doanditu), *arrasgoa* (+izquirillea), *arregatu* (+ugaindu), *artilleria* (+sutumpa, *sutumpadia*), *atarazana* (+ontzi-*quintegua*), *azenia* (+uboillaya “rodete”).

Beraz, euskal hitz zaharrak izateak berriro erabili beharrik ez sortzeaz gainera, areago, hitzberrigintza bera ere ez du eragozten: badirudi Larramendik ez zuela, ez eta honelakoetan ere, burura etorri zitzaizkion hitzak aukeran eskain-

tzeko egokiera galdu nahi izan. Gertakari hau testuinguru zabalago batean bakarrik uler daitekeelakoan gaude: hizkuntzaren aukerak azalerazteko bere buaruari aitortu zion eskubidearen arabera, alegia.

4) *HH*-an sarrera askok etimologia hutsa jasotzen dute, bestelako osagarriarik gabe. Halako batzuk nabarmenki bigarren mailako sarrerak edota bigarren mailako etimologiak dira, hots, bidalketa-dei modura funtzionatzen dute, eta ez da erraz jakiten –*EGH*-aren laguntzarik gabe bederen– bertan agertzen den etimoa ordaintzat proposatzen ari den ala ez. Ikus ondoko adibideok:

Assayar, intentar, voz antiquada de Aragón, es Bascongada, *assayatu*, que en algunas partes se conserva así, y en otras se dize *sayatu*.

Ensayar, viene de el Bascuence *sayatu*, que significa probar, examinar, ensayar.

Ensayado, *sayatua*.

Intentar, *nai izan, benaitu, ecaitu*.

Atapar, véase *tapar*. Viene de el Bascuence *atapatu*, de *atepetu*.

Tapar, es de el Bascuence *tapatu*, que significa lo mismo, *estali, bozatu*.

Tapado, *tapatua, &c.*

Itxura batean, etimologia hutsak dira, eta barruko euskal hitzak etimoak baino ez. Alabaina, badirudi hiztegiak sarreren arteko harremanak berrikusi ez izanari egotzi behar zaizkiola, zeren bitik bitan *EGH*-ak jasotzen baititu, bai *asaiatu*, baita *atapatu* ere.

## 6. ONDORIOAK

Lanean zehar erdietsitako emaitzak ez dira gehiegi aldentzen Larramendik berak maileguak nola ikusten zituen eta honetaz esan zuenetik, baina aukera izan dugu hiztegia osatzeko erabili zituen irizpide zehatzez zerbait ikasteko.

Lehen ondorio gisa, argi geratu da *HH*-an jasotako maileguak ez direla nolana hikoak izango; hots, Larramendik esan ez eze, egin ere egin zuela iragarritako baheketa: gure laginean maileguk betetzen duten ehuneko txikia (%7) ikusi baino ez dugu behar, euskaraz oro har ohikoa denetik beherakoa baita, eta zehazki Urteren hiztegiaren herena inguru, konparazio baterako.

Jakintzat eman dezakegu, honi dagokionez, hiztegian sartu ez zituen mailegu guztiak, ahaztuak ahazturik, berak “arbuigarri” zeritzen taldekoak direla, hots, euskaran oraindik errotu gabeak izanik, bere ustez euskaratik behin betiko erauztekoak zirenak.

Nolanahi ere, bistan da agian pentsatu baino hiztegiak gisa Larramendi garbizaleagoa izan zela; erkaketa zehatzak egin beharko dira, baina ez dago dudarik lehenagoko idazle eta hiztegiak bainoago izan zela, bai eta geroko asko bainoago ere ziurrenik, XIX. mendearen bukaera arte bederen. Orain neurtzeko dugu idazle gisa erabili zituenak, jakina, baina aieruz mintzatzea zilegi baita, esango nuke Larramendi hiztegiak idazlea baino ere garbizaleago izan zela, profilaxi gisa, beharbada.

Baheketa latzagarri ere, maileguak zabalik dituzte ateak *HH*-n, lehenik eta behin ez baitirudi erdaratik kosta ahala kosta bereizteko grinarik zeukateenik, alderantziz baizik, euskarak erdarari emandako maileguen auzia zela eta. Kontu honi etekin handia atera zion *HH*-ko lexikoa osatzerakoan: gure laginaren erdia inguru euskal etimologia darama aldean.

Alabaina, beste alde batetik, paradoxa moduan-edo, etimologiadun maileguez egiazki Larramendiren garbizaletasuna are berrestenago dute: haren begiekin begiratuta (eta hauxe da begiratzeko modurik egokiena, inolaz ere) maileguak ez direnez, *de iure*-ko euskal hitzak baizik, zuzen jokatzera maileguen kopurutik kendu behar genituzke eta, behin hauek alde batera utzita, aitortu behar da *HH*-an maileguez duten egiazko pisua txiki-txikia dela, ia ezereza gainerako baliabideen aldean. Etimologiaren bermearekin etorri ezetan, bada, muga zorrotza aurkitu zuten maileguez Larramendiren hiztegian sartzeko.

Etimologiaren funtzioari dagokionez, egiaztatu dugu ez dela “zorraz hartzeko bihurtzea”, bidenabar baino ez bada: egia da jadanik erabiltzen ari zen mailegu mordoxka bat era honetara bermatu zuela, baina, batetik, ez zituen mailegu guztiak era honetara “bataiatu”, nahiz aise egitea bazukeen; eta, bestetik, ez zuen eragozpenik ere izan sekula euskaraz entzun edo irakurri ez zituen hitzei etimologia emateko, ez eta ezertarako ere behar ez zituenei ere.

Bidenabar izanik ere, aitortu behar dugu *HH*-an agertzen diren mailegu berri asko eta asko –lehenagoko lekukotasunik ez dutenak, alegia– etimologiek bertaratu dituztela; hauen artean bereziki aipatzekoak dira etimologiadun hitzen erdal eratorriak, dozenaka sartu baitira, diren-direnean, erdal atzizkia eta guzti sartu ere, etimologia dela kausa, gainerantzean Larramendik ohi ez bezala.

“Benetako” maileguetara etorrita, eta euren nolakoari dagokionez, ikusi dugu berak berariaz aipatuetatik berriki aurkitu/asmatu diren zeren multzo zabalak osatzen duela arlo semantikorik handiena eta, honekin bat etorriarik, jakina, alde handiz izenak direla Larramendik onartutako mailegu gehienak. Ez halabeharrez: eskuarki izena aski zuen, gero euskararen barruan bertatik eratorriko baitzituen gainerakoak behar ahala.

Halaber, ikusi dugu onartutako maileguen artean maila ezberdinak daudela, Larramendik zioenaren ildotik. Batzuk sarrerako aukera bakarra dira eta, gainera, normaltasun osoz erabiltzen dira adibide zein eratorrietan. Bistan da honelakoetan hiztegiak ez duela kide hoberik idoro; batzuetan agian beharrik ere ez zukeen sumatu: demagun, eusk. *atxiote*, gazt. *achiote* eta are lat. *achiotus* deritzan Ameriketako zuhaitzaren kasuan, esate baterako. Laburbilduz, hauek eta honelakoak bide dira berak “beharrezkotzat” zituen maileguak.

Besteak, berriz, aukera gehiagor inguratuta daude sarreran eta, beraz, badirudi Larramendik “behargabekotzat” jotakoak direla, pixkana ordezkatu nahi zituenak. Halere, hauen artean ere ez dira denak bat: batzuk normal erabiltzen diren bitartean, bestetarik bigarren mailan daude, gainerako aukeretan Larramendik hobetsitako kideren batek ordezkatuta. Hiru multzotan bana daitezke, argi pixka bat egitearren, *HH*-an duten erabileraren arabera: arruntak, defektiboak eta lekukotasun hutsak, nolabait esanda. Ordain arruntak ez dira ezertan bereizten hiztegiak gainerako hitzetatik, esanahiki-deetan agertzeko eta familiako sarrerak eratorriez-eta hornitzeko gai diren heinean; beraz, pentsa dezakegu Larramendik ez zuela uste hauek ordezkatzeko erraza edota beharrezkoa izango zenik. Defektiboak erdibidean daude: arrazoi ezberdinengatik hiztegian zehar aztarnaren bat utzi badute ere, badira eurak baino maizago darabiltzan ordainak. Honelakoez esan ahal dugu, beraz, *HH*-an *de facto* ordezkatzeko hasiak ditugula. Eta, azkenik, badirudi

mailegu batzuk “lekukotasun hutsak” direla, batzuetan literatur tradizioetik jasotako pitxiak-edo, bestetan agian azken orduan erantsitakoak: hiztegia haien berri ematera mugatzen da, gainerako zereginak sarrerakideren batek betetzen dituen bitartean.

Esan gabe doa honako honekin ez dela amaitu Larramendirenean ez ezik, Lehen Euskara Modernoan maileguez izan zuten lekuaren azterketa. Bigarrenaz den bezainbatean, hemen ikusitakoa osatu beharra dago maileguen garai hartako erabilera ere aztertuz, bai eta *HH*-ak erabilera horretan izan zuen eragina neurtuz. Larramendiri dagokionez, gorago aipatuez gainera, egiteko garrantzizkoen artean jarriko nuke bateko eta besteko maileguez *EGH*-an izan duten patua: alde batetik, euskara-erdara hiztegia izanik badi-rudi “benetako” maileguetan bahiketa zorrotzagoa izan litekeela *HH*-an baino, baina hau egiaztatu beharko da; bestetik, aipagarria da ezen, etimologia duten maileguetan, *HH*-an batzuetan ilun xamar ageri diren mailegu, etimo eta ordainen arteko mugak azkenean zertan geratu ziren erabakitzen nahiko lagundu digula *EGH*-ak, osatuta dagoen neurrian. Ildo batean zein bestean, zati bateko lana geratzen da.

## BIBLIOGRAFIA ETA LABURDURAK

- AGUD, Manuel & Antonio TOVAR, 1988-1994, “Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca”, *ASJU*, 22:1etik aurrera atalka aterea lehenik, eta gero *ASJU*-ren 13 (a-ardui), 19 (ardun-beuden), 24 (beule-egileor), 26 (egiluma-galanga), 30 (galani-iloza), 33 (ilpiztu-korotz) eta 37. (korpa-orloi) gehigarrietan.
- ALONSO, L. & ZURRO, E., 1977, *La traducción bíblica: Lingüística y Estilística*, Madril, Ed. Cristiandad.
- ALTUNA, P., 1967, “Larramendiren iztegi berria”, *Euskera*, 12, 139-300.
- , 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak (edizio kritikoa)*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- , 1984, “La auténtica biblioteca de Larramendi”, *Muga*, 228, 66-81.
- ARESTI, G., 1973, “Léxico empleado por Leizarraga de Briscous”, *FLV*, 13, 61-128.
- BDELC* = Corominas 1976.
- COROMINAS, J., 1976, *Breve Diccionario Etimológico de la Lengua Castellana*, Madril, Gredos.
- & J. A. PASCUAL, 1980-1983, *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, (5 lib.), Madril, Gredos.
- DCECH* = Corominas & Pascual 1980-1983.
- ECHENIQUE, M<sup>a</sup> Teresa, 1997, *Estudios lingüísticos vasco-románicos*, Madril, Istmo.
- EGH* = Larramendi, *Euskara-Gaztelania Hiztegia* (ik. Altuna 1967).
- EH* = Sarasola 1996.
- ELHUYAR, 1996, *Hiztegia. Euskara-gaztelania. Castellano-vasco*, Usurbil, Elhuyar Kultur Elkarte. [sareko bertsioa: [http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)]
- ETXEBERRI SARAOKA, J., 1712, “Escuararen hatsapenac”, in J. DE URQUIJO (arg.), *Obras vascogadas del doctor labortano Joannes d’Etxeberri (1712)*, Paris, Paul Geuthner, 1907, 1-119.
- FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, A. R. (arg.), 1980, *Benito Jerónimo Feijoo. Teatro Crítico Universal*, Madril, Cátedra.
- HARRIET, M., 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua Francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Baiona, Fauvet.
- LAKARRA, J. A., 1985, “Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan”, *ASJU*, 19:1, 9-50.
- , 1986, “Burgosko Dotrina (1747): I. Testua eta oharra”, *ASJU*, 20:2, 533-594.
- , 1993, *XVIII. mendeko hiztegi gintzaren etorkiez*, UPV/EHU-ko tesi argitaragabea.
- , 1995, “Pouvreauren hiztegiez eta hiztegi gintzaren historiaz”, *ASJU*, 29:1, 3-52.
- , 1997, “Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri”, *ASJU*, 31:2, 447-535.
- LAPESA, R., 1984, *Historia de la lengua española*, Madril, Gredos [9. arg. zuzendu eta emendatua].

- LARRAMENDI, M. de, 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, Donostia [Berrarg. faks., Donostia, Txertoa, 1984].
- , c. 1764, *Autobiografía y otros escritos*, J. I. Tellechea Idigorasen arg., Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1973.
- , c. 1764, *Corografía de Guipúzcoa*, ms. de la Real Academia de la Historia, fondo *Jesuitas*, leg. 62. J. I. Tellechea Idigorasen arg., Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969.
- LÁZARO CARRETER, F., 1949 [1985], *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Barzelona, Crítica.
- LOPE BLANCH, J. M., 1990, *Estudios de Historia Lingüística Hispánica*, Madril, Arco/Libros. *MDELV* = Agud & Tovar 1988.
- MIRANDA, J. Alberto, 1994, *La formación de palabras en español*, Salamanca, Ediciones Colegio de España.
- MITXELENA, K., 1983, “Mendiburu eta Larramendi”, *Euskera*, 28:1, 19-23. [Berrarg. in *SHLV*, II, 912-915].
- , 1984, “Aurkezpena” [in Sarasola 1984; Berrarg. in *SHLV*, I, 349-360].
- , 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*, (15 lib.), Bilbo, Euskaltzaindia, etab.
- MOKOROA, Justo Mari, 1936, *Genio y lengua*, Tolosa, Librería de Mocoroa hermanos. *OEH* = Mitxelena 1987-2005.
- OSSELTON, N. E., 1973, *The Dumb Linguists. A Study of the Earliest English and Dutch Dictionaries*, University Press, Leiden.
- PRATT, C., 1980, *El anglicismo en el español peninsular contemporáneo*, Madril, Gredos.
- SARASOLA, I., 1984-1995, *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, Donostia, GAK.
- , 1996, *Euskal Hiztegia*, Donostia, Kutxa Fundazioa.
- SEGUROLA, K., 2008, “XVIII. mendeko garbizaletasuna: Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* eta eskuizkribuak”, Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarrera (Gasteiz, 2007ko urriaren 8-11) aurkeztutako komunikazioa (argitaratzeko).
- SEIFFERT, L., 1990, “The Vernacularist and Latinist Justus-Georgius Schottelius and the Traditions of German Linguistic Purism”, in W. Hüllen (arg.), *Understanding the Historiography of Linguistics. Problems and Projects*, Symposium at Essen, 23-25 November 1989, Nodus Publikationen, Münster, 241-261.
- URGELL, B., 1991, “Axular eta Larramendi”, *ASJU*, 25:3, 901-928.
- , 1998, “*Hiztegi Hirukoitza* eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (II): sarreraren edukia”, *ASJU*, 32:2, 365-414.
- , 2000a, *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, UPV/EHUko tesi argitaragabea.
- , 2000b, “Larramendiren iturri idatziak (I): euskal liburuak”, in Urgell 2000a, 923-1020.
- , 2000c, “Entzundako hitzak”, in Urgell 2000a, 1131-1171.
- , 2000d, “Larramendiren iturri idatziak (II): hiztegiak”, in Urgell 2000a, 1021-1079.
- , 2000e, “Larramendiren iturri idatziak (III): erdal liburuak”, in Urgell 2000a, 1081-1130.
- , 2000f, “Euskal hitza zer den edo Larramendiren hitzberrigintzaren oinarri teorikoak”, in Urgell 2000a, 519-556.
- , 2001, “Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian”, *ASJU*, 35:1, 107-183.
- , 2002, “*Hiztegi Hirukoitza*-ren kanpoko eta barruko historiaz”, in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, *ASJU*-ren gehigarriak 44, Bilbo, 629-649.
- , 2004, “Etimologia eta hitz sorkuntza Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-ean”, *Lapurdum*, 9, 299-310.
- , 2008a, “Elkarketa Larramendiren hiztegian”, *ASJU*-n argitaratzeko.
- , 2008b, “Hitz eraketarako baliabide orokorrak Larramendiren hiztegian”, *ASJU*-n argitaratzeko.
- , 2008c, “Etimologiak Larramendiren hiztegian”, *FLV*, 2008:2 (argitaratzeko).
- VILLASANTE, Luis, 1973, *Axular-en Hiztegia*, Arantzazu/Oñati, Jakin.

## ERANSKINA. CORPUSEKO MAILEGUAK

- abade* “abad” (1630). EGH.  
*abade* “cura” (1562).  
*abadesa* “abadesa” (1562). EGH.  
*abadia* “abadía, dignidad” (1562).  
*abanino* “abanino”.  
*abarka* “abarca” (XI ea.). ETIM. EGH.  
*abarkatu* “abarcar”. ETIM.  
*abendu* “diciembre” (1501), “adviento” (1621).  
*abere* “animal” (1562). ETIM.  
*aberia* “avería”, “gasto” (1712). ETIM. EGH.  
*abeto* “abeto”.  
*abeze* “abecé” (XVII ea.), “cartilla” (1571). EGH.  
*abezedario* “abecedario” (1715).  
*abia* “nido” (1596). ETIM.  
*abiatu* “comenzar” (1571). ETIM.  
*abilamendu* “vestido” (1571).  
*abilantez* “avilantez”. ETIM. EGH.  
*abilidadade* “abilidad” (1653).  
*abisatu* “avisar” (1545).  
*abisu* “aviso” (1571).  
*(h)abitu* “hábito” (1610).  
*ablatibo* “ablativo” (1712).  
*aboilatu* “abollar”. ETIM. EGH.  
*aboztu* “agosto” (1715).  
*abre* “bestia” (1571).  
*abrigatu* “abrigarse”. ETIM.  
*abrigu* “abrigado lugar”.  
*abroila* “ambrolla”, “hadrolla”. ETIM.  
*absolbitu* “absolver” (1627).  
*abstinenzia* “abstinencia” (1617).  
*abuztu* “agosto” (1627).  
*adala* “adala”. ETIM. EGH.  
*adarbe* “adarve” ETIM. EGH.  
*adarga* “adarga” (1562). ETIM. EGH.  
*adarme* “adarme” (1562).  
*adberbio* “adverbio” (1712).  
*adeala* “adehala”.  
*ademan* “ademán”. ETIM. EGH.  
*adiba* “adiva(s)” (XVII ea.). EGH.  
*administratu* “administrar (haciendas, etc.)” (1571).  
*admiratu* “admirar a otro” (1627).  
*adobatu* “remendar” (1562). ETIM.  
*adoratu* “adorar” (1545).  
*ados* “(a) dos, en el juego de pelota”.  
*adrailu* “ladrillo”.  
*adreztu* “aderezar”. ETIM. EGH.  
*adrilu* “ladrillo”.



*aduana* “aduana”. EGH.  
*adulteratu* “adulterar” (1571).  
*adulterio* “adulterio” (1571).  
*adultero* “adúltero” (1571).  
*agasajatu* “agasajar”. ETIM.  
*agasajo* “agasajo”. ETIM.  
*agata* “ágata”.  
*aginaldo* “aguinaldo”. ETIM. EGH.  
*agnus* “agnus”.  
*agoantatu* “aguantar”. ETIM. EGH.  
*agorgea* “gorga”. ETIM.  
*agradatu* “agradar” (1627).  
*ailegatu* “llegar”.  
*ailorbe* “alholba”. ETIM. EGH.  
*añagaza* “añagaza”. ETIM. EGH.  
*añaze* “añazea(s)”, “feria”. ETIM.  
*añazme* “añazme”, “manilla”. ETIM.  
*aingeru* “ángel” (1571).  
*aingira* “anguila” (xvii ea.). ETIM. EGH.  
*aingura* “ancora” (1627). ETIM. EGH.  
*ainuskatu* “añusgar(se)”. ETIM. EGH.  
*aio* “ayo” (1562). ETIM. EGH.  
*aire* “aire” (1545).  
*aitzaki(a)* “achaque, excusa” (1627). ETIM. EGH.  
*aitzakiatu* “achacar”. ETIM. EGH.  
*ajedrez* “axedrez”.  
*ajonjoli* “ajonjoli”.  
*ajuda* “ayuda”.  
*ajustatu* “ajustarse” (1677).  
*akabatu* “acabar” (1571). ETIM. EGH.  
*akazia* “acacia” (1715).  
*akolito* “acólito”.  
*akomodatu* “acomodar”.  
*akordatu* “acordar(se)” (1656). ETIM. EGH.  
*akusatu* “acusar” (1545).  
*akusazio* “acusación” (1562).  
*akzidente* “accidente, mal” (1617).  
*alabanza* “alabanza” (1562). ETIM.  
*alabarda* “alabarda” (1715). ETIM. EGH.  
*alabastro* “alabastro”. ETIM. EGH.  
*alabatu* “alabar” (1621). ETIM. EGH.  
*alabe* “alabe”. ETIM. EGH.  
*alabesa* “alabesa”.  
*alaga* “alaga”. ETIM. EGH.  
*alaja* “alaja”. EGH.  
*alajatu* “alajar”.  
*alamar* “alamar”. EGH.  
*alanbre* “alambre”. ETIM. EGH.  
*alaraka* “alaraca”. ETIM. EGH.

*alarbe* “alarbe”.  
*alarde* “alarde”.  
*alba* “alba” (1620). ETIM.  
*alba* “alba de sacerdote” (1621).  
*albaka* “albahaca”.  
*albenda* “albenda”. ETIM. EGH.  
*alberdania* “albardanía”. ETIM. EGH.  
*albertxigua* “albaricoque, albérchigo”.  
*albiriste* “albricias” (1635). ETIM. EGH.  
*albiste* “albricias”. ETIM. EGH.  
*albokea* “albogue” (1636). EGH.  
*albokero* “alboguero”. EGH.  
*albondiga* “albóndiga”. EGH.  
*alborada* “alborada”. ETIM. EGH.  
*alborakia* “alboroque”. ETIM. EGH.  
*albornia* “albornia”. ETIM. EGH.  
*albornoz* “albornoz”. ETIM.  
*alboronia* “alboronia”.  
*alboroto* “alboroto” (XVII ea.). ETIM.  
*alborozo* “alborozo”. ETIM.  
*aldamio* “andamio”. ETIM. EGH.  
*aldare* “altar” (1571). EGH.  
*aldea* “aldea” (1562). ETIM.  
*aleatu* “alear”. ETIM. EGH.  
*alegeratu* “alegrar” (1571). ETIM. EGH.  
*alegere* “alegre”.  
*alegeria* “alegría”. EGH.  
*alegustre* “alegust[r]e”.  
*aleluia* “aleluya, [exclamación en los oficios divinos]” (1571?).  
*alerta* “alerta”. ETIM. EGH.  
*alerz(e)a* “alerce”.  
*alfanje* “alfange”.  
*alferez* “alférez” (1562). ETIM. EGH.  
*alferezia* “alferecía, enfermedad”. ETIM.  
*algara* “carcajada”. ETIM.  
*algarabia* “algarabía”. ETIM. EGH.  
*algarada* “algarada”. ETIM.  
*algebra* “álgebra”.  
*halifa* “halifa, califa”.  
*alimaña, alimania* “alimaña”.  
*alkabala* “alcabala”. ETIM. EGH.  
*alkabuz* “arcabuz” (1600). EGH.  
*alkaizeria* “alcaicería”. ETIM.  
*alkandora* “alcandora” (1562). ETIM. EGH.  
*alkanfor* “alcanfor”.  
*alkanforatu* “alcanforado”.  
*alkanzatu* “alcanzar” (1656). ETIM. EGH.  
*alkanze* “alcance”. ETIM. EGH.  
*alkaparra* “alcaparra”.

*alkarabea* “alcaravea”. ETIM. EGH.  
*alkarra(t)za* “alcarraza”. ETIM. EGH.  
*alkate* “alcalde” (1264). ETIM. EGH.  
*alkatraz* “alcatraz”.  
*alkilatu* “alquilar”. ETIM. EGH.  
*alkiler* “alquiler”. EGH.  
*alkoba* “alcoba”.  
*alkokarra* “alcocarra”. ETIM.  
*almea* “almea”. ETIM. EGH.  
*almena* “almena” (xv h.). ETIM. EGH.  
*almendra* “almendra” (1562). ETIM. EGH.  
*almendrada* “almendrada”.  
*almendrua* “almendro”.  
*almez* “almez”.  
*almidoatu* “almidonar”.  
*almidoi* “almidón”. EGH.  
*almila* “almilla”.  
*almiranta* “almiranta, navío”.  
*almirante* “almirante” (1712).  
*almoneda* “almoneda”. EGH.  
*aloza* “alforza”, “tomado”. ETIM. EGH.  
*alpiste* “alpiste”. ETIM. EGH.  
*alportxa* “alforja” (1741).  
*altare* “altar” (1656). EGH.  
*altxatu* “alzar” (1545). ETIM. EGH.  
*altzadura* “alzada”. ETIM. EGH.  
*altzairu* “acero” (1627). ETIM. EGH.  
*altzatu* “alzar”. ETIM. EGH.  
*alburreka* “alhurreca”. ETIM.  
*amaño* “amaño”. ETIM.  
*amarra* “amarra” (1665). EGH.  
*amarratu* “amarrar” (1643). ETIM. EGH.  
*amaszena* “amacena, damascena, ciruela”.  
*amatu* “amar” (1596). ETIM. EGH.  
*amelo* “amelo” (1715).  
*amirez* “almirez”. EGH.  
*amirun* “almidón”.  
*amitu* “amito” (1656).  
*amizkle* “almizcle”. EGH.  
*amodio* “amor”, “amorío” (1622). ETIM. EGH.  
*amomo* “amomo”.  
*amore* “amor” (1536). EGH.  
*amorio* “amor”, “amorío” (1545). ETIM. EGH.  
*amorratu* “rabiar”. ETIM.  
*anakardo* “anacardo”.  
*anaskote* “anascote”. ETIM. EGH.  
*anbrosia* “ambrosía” (1715).  
*anda* “anda” (1562). ETIM. EGH.  
*andana* “andana”. ETIM. EGH.

*anden* “andén”. ETIM. EGH.  
*andurrial* “andurrial”. ETIM. EGH.  
*anega* “fanega” (XVII ea.).  
*angarila* “angarilla(s)” (1562). ETIM. EGH.  
*angura* “ancora” (1571). ETIM. EGH.  
*angurria* “angurria”. ETIM. EGH.  
*angustia* “angustia” (1737). ETIM. EGH.  
*angustiatu* “angustiar”.  
*anima* “alma” (1713). ETIM<sup>42</sup>. EGH.  
*animalia* “animal” (1643). EGH.  
*animatu* “animar” (1562). EGH.  
*anime* “anime, goma”.  
*animo* “ánimo” (1562). EGH.  
*anis* “anís” (1562).  
*anka* “anca” (1621). ETIM. EGH.  
*ankon* “ancón”. ETIM. EGH.  
*anparatu* “amparar”. ETIM. EGH.  
*anparo* “amparo” (1656). EGH.  
*anpoila* “ampolla”. ETIM. EGH.  
*anpulu* “burbuja”, “gota”. ETIM.  
*antekristo* “Antechristo” (1627, *antekrist* 1571).  
*an(t)sia* “ansia” (1545). ETIM. EGH.  
*antxoba* “anchova”.  
*an(t)zar* “ganso”, “ansar” (1182). ETIM. EGH.  
*ahorratu* “ahorrar”. ETIM. EGH.  
*ahorrua* “ahorro”.  
*apart* “aparte” (1545).  
*apartatu* “apartar” (1545). ETIM. EGH.  
*aparte* “aparte” (1626).  
*apiril* “abril” (1562). ETIM<sup>43</sup>.  
*apostatu* “apostar”.  
*apostoliko* “apostólico” (1571).  
*apostolu* “apóstol” (1571). EGH.  
*apresatu* “apresar”.  
*aranbre* “alambre”. ETIM. EGH.  
*arbola* “árbol” (1609). EGH.  
*ardit* “ardite” (1425). ETIM. EGH.  
*area* “arena” (1562). ETIM.  
*argana* “argana”. ETIM. EGH.  
*arguitu* “argüir”. ETIM. EGH.  
*aribatu* “aribar”. ETIM. EGH.  
*arima* “alma” (XIV). ETIM<sup>44</sup>. EGH.  
*arka* “arca” (1562). ETIM. EGH.  
*arlekin* “arlequin”. ETIM. EGH.

<sup>42</sup> Honen etimologia hitzaurrean bakarrik (1745: XIX) agertzen da.

<sup>43</sup> Hitzaurrean bakarrik (1745: XIX).

<sup>44</sup> *anima*-z esan bezala, hitzaurrean bakarrik agertzen da.

*arlote* “arlote” (1596). ETIM. EGH.  
*arma* “arma” (1545). EGH.  
*armada* “armada” (1688). EGH.  
*armadura* “armadura” (1571).  
*armario* “almario” (1562). ETIM. EGH.  
*armatu* “armar(se)” (1545). EGH.  
*armiño* “armiño”. ETIM. EGH.  
*harmonia* “harmonía” (1627).  
*aroi* “harón”. ETIM.  
*arpa* “harpa” (1562). ETIM.  
*arpeo* “harpeo”. ETIM.  
*arpia* “harpya”. ETIM.  
*arpilera* “harpillera”. ETIM.  
*arpista* “harpista”.  
*arpoi* “harpón” (1627). ETIM. EGH.  
*arrabia* “rabia” (1713). ETIM.  
*arrabiatu* “rabiar”.  
*arrabieta* “rabieta”.  
*arraia* “raya” (1741). ETIM. EGH.  
*arraian* “arrayán, planta”. ETIM. EGH.  
*arraiatu* “rayar”.  
*arraka* “raja”. ETIM. EGH.  
*arrakada* “arracada(s)”. ETIM. EGH.  
*arraketa* “raqueta”. ETIM.  
*arralea* “ralea”. ETIM.  
*arrankatu* “arrancar”. ETIM. EGH.  
*arranzio* “rancio”.  
*arrapatu* “arrapar”, “atrapar” (1571). ETIM. EGH.  
*arras* “ras” (1643). ETIM. EGH.  
*arrasatu* “arrasar” (1571). ETIM. EGH.  
*arrasgatu* “rasgar”. ETIM.  
*arrasgeatu* “rasgar”, “rasguear”.  
*arrasgo* “rasgo”. ETIM.  
*arrasgoi* “rasgón”.  
*arrasila* “rasilla, tela de lana”.  
*arraskadura* “rascadura” (XVII ea.).  
*arraskatu* “rascar” (XVII ea.). ETIM.  
*arraso* “raso, tela”.  
*arrastatu* “arrastrar” (1713). ETIM. EGH.  
*arrasteatu* “rastrear”. ETIM.  
*arrasto* “rastro” (1627). ETIM. EGH.  
*arratoi* “rata”, “ratón grande”. ETIM.  
*arrazo* “raza” (1571). ETIM.  
*arrazoe* “razón” (1713).  
*arrazoi* “razón”.  
*arrazoin* “razón” (1617?).  
*arregatu* “regar” (1571). ETIM.  
*arrendatu* “arrendar” (1562). EGH.  
*arrestatu* “arrestar”. ETIM.

*arriatu* “arriar”. ETIM. EGH.  
*arrimatu* “arrimar” (1562). EGH.  
*arrimua* “arrimo” (1715). ETIM. EGH.  
*arroba* “arroba” (1562). ETIM. EGH.  
*arroganzia* “arrogancia” (1571). ETIM. EGH.  
*arrojo* “arrojo”. ETIM. EGH.  
*arroka* “roca” (1571). ETIM.  
*arrokaila* “rocalla”.  
*arronzatu* “arronzar”. ETIM. EGH.  
*arropa* “ropa” (1571). ETIM.  
*arropaje* “ropage”.  
*arropatu* “arropar”. ETIM. EGH.  
*arrope* “arrope”. ETIM. EGH.  
*arropila* “ropilla”.  
*arropoi* “ropón”.  
*arrosa* “rosa” (1610). ETIM.  
*arrotzatu* “arrozar”. ETIM. EGH.  
*arroz* “arroz” (1562). ETIM. EGH.  
*arte* “red”, “lazo” (1545). ETIM. EGH.  
*artemisía* “artemisía” (1715).  
*arteria* “arteria” (1715). ETIM. EGH.  
*artilería* “artillería” (1562). ETIM. EGH.  
*artimaña* “artimaña”. ETIM.  
*artista* “artista” (1562).  
*artxa* “archa”. ETIM. EGH.  
*artxiduke* “archiduque” (1715).  
*artxidukesa* “archiduquesa” (1715).  
*arzediano* “arcediano” (1562).  
*arzoe*, *arzoi* “arazón”. ETIM. EGH.  
*asaiatu* “assayar” (1545). ETIM. EGH.  
*asensio* “axenjo”. ETIM. EGH.  
*asma* “asma” (1562). ETIM. EGH.  
*asmadura* “asmadura”. ETIM. EGH.  
*asmatu* “asmar” (xv ea.). ETIM. EGH.  
*asomatu* “asomar”. ETIM. EGH.  
*asustatu* “asustar”. ETIM.  
*atabal* “atabal” (1562).  
*atakatu* “atacar” (1627). ETIM. EGH.  
*atapatu* “atapar” (1562). ETIM.  
*atarazana* “atarazana”. ETIM. EGH.  
*atarraia* “atarraya”. ETIM. EGH.  
*atisbeatu* “atisbar”. ETIM. EGH.  
*atrabesatu* “atravesar” (1621). ETIM. EGH.  
*atrakatu* “atracar”. ETIM. EGH.  
*atrapatu* “atrapar” (1571). ETIM. EGH.  
*atrebitu* “atreverse” (1562). ETIM. EGH.  
*hatu* “hato”. ETIM.  
*atun* “atún” (xvii ea.).  
*aturditu* “aturdir”. ETIM. EGH.

*atxakia* “achaque” (1571). ETIM. EGH.  
*atxakiatu* “achacar” (1571). ETIM. EGH.  
*atxiote* “achiote”.  
*atzaga* “zaga” (1596). ETIM.  
*autatu* “optar” (1545). ETIM.  
*azabra* “azabra”, “fragata”. ETIM. EGH.  
*azafrai* “azafrán” (1562). EGH.  
*azagaia* “azagaya”. ETIM. EGH.  
*azaia* “azaya”. ETIM. EGH.  
*(h)azaña* “hazaña” (1688). ETIM.  
*azañeria* “hazañería”.  
*azar* “azar”. ETIM. EGH.  
*azeituna* “aceituna” (1562).  
*azendatu* “hacendar”. ETIM.  
*azenia* “aceña”. ETIM.  
*azerola* “acerola”. EGH.  
*azerta(d)u* “acertar, suceder”. ETIM. EGH.  
*azienda* “hacienda” (1621). ETIM.  
*azitrai* “axedrea”. ETIM. EGH.  
*azitroi* “acitrón, sidra hecha dulce”.  
*azoge* “azogue” (1562). EGH.  
*azor(e)* “azor”.  
*azotatu* “azotar” (1562). EGH.  
*azote* “azote” (1562). EGH.  
*azufaiifa* “azufaiifa”.  
*azuga, azura* “azuda”. ETIM.  
*azukre* “azúcar” (1562). EGH.  
*azuzena* “azucena” (XVII ea.). ETIM. EGH.

## LABURPENA

*Maileguak Larramendiren hiztegian*

Lan honetan Lakarrak (1985) ezarritako ikuspegitik abiatu gara, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ko maileguak aztertzeko, hiztegi beraren iturriez eta sorbideez egindako lan orokorrago baten barruan (Urgell 2000). Xede honekin, maileguen erakusgarri bat arakatu dugu, ikuspuntu ezberdinen arabera ezauzgarritzatuz (arlotu semantikoak, gramatika kategoriak eta lehenagoko erabilera), baina batez ere hiztegiekileak berak agerian aipatutako hatsapenen arabera neurtuz, hots, maileguak beharrezkoak direnentz eta haientzat euskal etimologiarik proposatu duenentz. Halatan, Larramendirenean teoria lexikoa eta praktika lexicografikoaren artean dauden batetortzeak eta aldeak ikusteko parada izango dugu.

## RESUMEN

*Los préstamos en el Diccionario de Larramendi*

En este trabajo partimos del enfoque establecido en Lakarra (1985) para analizar los préstamos del *Diccionario Trilingüe* de Larramendi (1745), dentro de un trabajo más general realizado sobre las fuentes y los modos de creación léxica del mismo (Urgell 2000). Con este fin, hemos analizado una muestra de los préstamos, caracterizándolos según diferentes perspectivas (campos semánticos, categorías gramaticales y documentación anterior), pero sobre todo centrándonos en los presupuestos explicitados por el propio lexicógrafo, a saber: necesidad o no de los préstamos, y existencia o no de propuesta etimológica desde el euskera. De este modo, podemos ver las coincidencias y diferencias existentes entre la teoría léxica y la práctica lexicográfica en Larramendi.

## RÉSUMÉ

*Les emprunts dans le dictionnaire de Larramendi*

Nous partons ici du point de vue de Lakarra (1985) pour analyser les emprunts du *Dictionnaire* trilingue de Larramendi (1745), dans un travail plus général, effectué sur les sources et les modes de création lexicale de celui-ci (Urgell 2000). Pour cela, nous avons analysé un nouvel échantillon des emprunts en les caractérisant d'après des perspectives différentes (champs sémantiques, catégories grammaticales et documentation précédente), mais surtout, en nous centrant sur les budgets explicités par le lexicographe lui-même, c'est-à-dire: les emprunts sont-ils nécessaires oui ou non, et l'existence ou non de proposition étymologique à partir de la langue basque. De cette façon, nous pouvons voir les coïncidences et les différences qui existent entre la théorie lexicale et la pratique lexicographique chez Larramendi.

## ABSTRACT

*Loanwords in the Larramendi dictionary*

In this article, we set off from the approach established in Lakarra (1985) in order to study the loanwords in Larramendi's *Trilingual dictionary* (1745), as part of a more general study of its sources and forms of lexical creation (Urgell 2000). For this purpose, we have analysed a sample of the loanwords, characterising them from different perspectives (semantic field, grammatical category and prior documentation), but above all focussing on the lexicographer's own explicit premises: the need or not for loanwords and the existence or not of a Basque-based etymological proposition. This allows us to highlight coincidences and divergences between lexical theory and lexicographical practice in Larramendi.